

**Bizkaiko Foru Aldundiaren  
kudeaketaren kronologia  
koronabirusak sorrarazitako krisialdia dela eta  
(2020ko otsailaren 25a-2020ko irailaren 29a)**

<b>Data</b>	<b>Saila</b>	<b>Kudeaketa</b>
<b>2020/02/25</b>	Gizarte Ekintza	Sailaren lehen plangintza egin zen koronabirusari aurre egiteko, GUFeko Zuzendaritza Batzordean.
<b>2020/02/27</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	COVID-19ri lotutako higiene- eta informazio-arauei buruzko lehen komunikazioa igorri zitzaien langileei, EAEn artean kutsaturik ez zegoela.
<b>2020/02/28</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Sailen arteko koordinazioa landu zen gelak eta euskarriak banatzeko, eta aurrez aurreko ikastaroak nahiz azterketak atzeratu ziren.
<b>2020/02/28</b>	Gizarte Ekintza	Prebentzio-neurriak jasotzen dituen Osasun Sailaren informazio-protokoloa bidali zen zentroetara.
<b>02/03/2020</b>	Gizarte Ekintza	Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren bilera egin zen, hartu beharreko arreta-neurriei buruzko gomendioak emateko.
<b>2020/03/02</b>	Ahaldun Nagusia, Gizarte Ekintza	Zentroen Batzorde Iraunkorraren deialdia egin zen eta COVID-19ak ekarritako larrialdiari aurre egiteko eta koordinatzeko lan-mahai iraunkorra eratu zen. COVID-19 koronabirus berria dela eta, Nazioarteko Garrantzia duen Osasun Publikoaren Larrialdiari aurre egiteko Kudeaketa eta Ekintza Plana onartu zen.
<b>2020/03/02</b>	Gizarte Ekintza	Osasun Sailari Bizkaiko adinekoen egoitzen eta eguneko zentroen inguruko informazioa bidali zitzaion: erakundeak, erreferentziako pertsonak, harremanetarako datuak.
<b>2020/03/02</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Garbiketa-enpresari jarraibideak eman zitzaizkion, ukipen handieneko gainazalen garbiketa indartzeko.
<b>2020/03/03</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Gobernu Kontseiluak Foru Aldundiaren Kudeaketa eta Jarduera Plana onartu zuen COVID-19ak sorrarazitako larrialdiari aurre egiteko. Diziplinarteko Batzordea Foru Agindu bidez sortu zen, eta langile guztiei osasun-gomendioen berri jakinarazi zitzaien.
<b>2020/03/03</b>	Gizarte Ekintza	Berriazko eskutitza bidali zen adinekoen zentroetara, profesionalentzako eta erabiltzaileentzako prebentzio-jarraibideak jasota, eta eskutitz orokorrak ere bidali ziren gizarte-zerbitzuetako zentroetara.
<b>2020/03/03</b>	Ahaldun Nagusia, Gizarte Ekintza, Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	BECen egitekoa zen osasun-laguntzailearen LEPa eten zen.
<b>2020/03/04</b>	Herri Administrazioa eta	Suhiltzaileentzako lehen jarraibide berriazkoa eman zen,

	Erakunde Harremanak	funtsezko zerbitzu hori babesteko neurriak hartzeko helburuz.
<b>2020/03/04</b>	Gizarte Ekintza	Zentroen Batzorde Iraunkorrak bilera egin zuen eta familientzako prebentziozko eta esku hartzeko jarraibideak jasotzen dituen dokumentua bidali zen adinekoen zentroetara: bisitak mugatzea (pertsone bakarra) eta desgaitasun-zentroetako erabiltzaileak biztanleria kalteberatzat hartzea.
<b>2020/03/05</b>	Gizarte Ekintza	Zentro soziosanitarioentzako gomendioak biltzen dituen Osasun Sailaren dokumentua bidali zitzaizen adinekoen eta desgaituen egoitza-zentro, etxebizitza komunitario eta eguneko arretarako zentro guztietako zuzendariari.
<b>2020/03/05</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	COVID-19 koronabirus berriak eragindako Nazioarteko Osasun Larrialdiari aurre egiteko xedez, Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa- eta jarduketak gomendioak jasotzen dituen bigarren protokoloa prestatu zen.
<b>2020/03/05</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	COVID-19 koronabirusak sorrarazitako egoeraren aurreko Ekintza eta Kudeaketa Plana onartu zen eta horren berri emateko deialdia egin zen.
<b>2020/03/05</b>	Gizarte Ekintza, Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Zentro soziosanitarioentzako gomendioak biltzen dituen Osasun Sailaren dokumentua zentro guztietako zuzendariari bidali zitzaizen.
<b>2020/03/06</b>	Gizarte Ekintza	COVID-19 dela eta, bilera egin zen GUFERI atxikitako zentro guztietako zuzendariekin, hartu beharreko jarraibide orokorrak adosteko helburuz.
<b>2020/03/06</b>	Gizarte Ekintza	Bilera egin zen desgaitasun-zentroetako arduradunekin, koronabirusak eragindako krisialdiari zentro horietan nola aurre egin erabakitzeko.
<b>2020/03/06</b>	Gizarte Ekintza	Mendetasuna baloratzeko eta Gizatek-eko lantaldeei ildoak eta jarraibideak bidali zitzaizkien, kutsapenak saihesteko.
<b>2020/03/06</b>	Gizarte Ekintza	Bilera egin zen sindikatuekin, koronabirusaren kudeaketaren berri emateko.
<b>2020/03/07</b>	Gizarte Ekintza	GUFeko jarraipen-batzordeen bilera egin zen, Birjinetxeko kutsatu baten berri izan ondoren, osasun-arduradunekin koordinatuta, hartu beharreko neurriak hartzeko, betiere SARS-COV-2 koronabirus berriaren eraginari aurre egiteko martxoaren 5eko lan-arriskuen prebentzio-zerbitzuentzako jarduketak-prozedurari jarraiki.
<b>2020/03/07</b>	Gizarte Ekintza	Gobernu Batzordearen premiazko eta ezohiko deialdia egin zen, langileen kontratazioari buruzko neurri murriztaileak hartzeko helburuz.
<b>2020/03/08</b>	Gizarte Ekintza,	Osasun Sailarekiko komunikazioa landu zen, pertsona

	Ahaldun Nagusia	kutsatuen hartu-emanak kontrolatzeko.
<b>2020/03/09</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Telelanean aritzeko funtsezko langileak zein diren zehaztu zen, eta arreta-zerbitzuetan arreta-lerroak eta edukierak atzeratzeko agindu zen.
<b>2020/03/09</b>	Gizarte Ekintza	Arreta goiztiarreko zentroetako zuzendariei prebentzio-jarraibideak bidali zitzaizkien, familiak helburu.
<b>2020/03/09</b>	Gizarte Ekintza	Zentro soziosanitarioetako bisiten inguruan, Osasun Sailak berrikusitako eta eguneratutako dokumentua bidali zen zentro guztietara.
<b>2020/03/09</b>	Gizarte Ekintza	Ikuskaritzari eta zentroen ataleko teknikariei ildoak eta jarraibideak bidali zitzaizkien, kutsatzea saihesteko.
<b>2020/03/09</b>	Gizarte Ekintza	Sindikatuetik bilera egin zen , hartutako neurrien berri emateko.
<b>2020/03/09</b>	Ekonomia Sustapena	Laneko segurtasunari eta higienerari buruzko lehen neurriak hartu ziren sailean eta haren mendeko sozietateetan.
<b>2020/03/10</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Diziplinarteko Batzordeak gomendio berriak adostu zituen eta foru-langile guztiei helarazi zizkien.
<b>2020/03/10</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Telelanean lansaiok handitzeko Foru Agindua eman zen.
<b>2020/03/10</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Garraio Sailaren Koronabirusaren aurkako Kontingentzia Batzordea eratu eta zerbitzu-hornitzaileekin koordinatu zen.
<b>2020/03/10</b>	Ekonomia Sustapena	Eusko Jaurlaritza, enpresaburu, sindikatu eta beste eragile ekonomiko batzuekiko bilera egin zen, informazioa trukatzeko asmoz.
<b>2020/03/10</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta berdintasuna	2020ko ekitaldian, garapenerako lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren diru-laguntzei buruzko abenduaren 17ko 197/2019 Foru Dekretuari buruzko dokumentazioa aurkezteko epeak luzatu ziren.
<b>2020/03/11</b>	Gizarte Ekintza	Birjinetxeko enpresa batzordearekiko bilera egin zen, bertako langileak kudeatzeko neurrien berri emateko.
<b>2020/03/11</b>	Gizarte Ekintza	GUFeko zuzendarietara bilera egin zen, birusa dela-eta, zentroetan hartu beharreko jarraibide zehatzen berri jakinarazteko.
<b>2020/03/11</b>	Gizarte Ekintza	Zentroen Batzorde Iraunkorrekiko bilera egin zen, egoitza-zentroetan koronabirusak kutsatutakoekin jarduteko jarraibideak jakinarazteko helburuz.
<b>2020/03/11</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Diziplinarteko Batzordeak bilera egin zuen, funtsezko zerbitzuak zedarritzatzeko.
<b>2020/03/11</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Kutsapenak saihesteko helburuz, prebentzio- eta higiene-neurriak nahitaez bete behar dituzten langileei

		jarraibideak eman zitzaizkien.
<b>2020/03/11</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Euskadiko Garraio Agintaritzaren talde bereziak bilera egin zuen.
<b>2020/03/11</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Telelanean aritzeko funtsezko zerbitzuak zehaztu ziren: Gizarteratze zuzendaritza.
<b>2020/03/12</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Erakunde arteko Batzordeak jarduteko jarraibideak indartu zituen eta langile sentikorrentzako neurriak ezarri ziren.
<b>2020/03/12</b>	Gizarte Ekintza	Gutxieneko zerbitzuak kudeatu ziren, 15 eguneko etxealdi baten testuinguruan, eta balizko epe luzeagoko testuinguruaren gaineko balorazioa egin zen.
<b>2020/03/12</b>	Gizarte Ekintza	Jarraibideak bidali zitzaizkien Haurren Zerbitzuko teknikariei eta BTEko profesionalei.
<b>2020/03/12</b>	Gizarte Ekintza	Osasun Sailaren gomendioak bidali ziren adinekoen etxe eta elkarteetara.
<b>2020/03/12</b>	Ekonomia Sustapena	Bilera egin zen Eusko Jaurlaritzarekin eta turismo-eragileekin.
<b>2020/03/12</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Berdintasunerako VI. Foru Plana prestatzeko ekintzen plana aldatu zen.
<b>2020/03/13</b>	Ogasuna eta Finantzak	2019ko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren itzulketak bizkortzeko agindu zen, batez ere, langile autonomoentzat, enpresa txikientzat eta mikroenpresentzat, haien likidezia ahalik eta gehien ahalbidetzeko.
<b>2020/03/13</b>	Ogasuna eta Finantzak	Lehen kutsatu biak agertu ziren foru-langileen artean.
<b>2020/03/13</b>	Gizarte Ekintza	Autonomia pertsonala sustatzeko zentroak (AFA, ASPARBI, ADEMBI, BIZIPOZ) itxeko gomendioaren berri jakinarazi zen.
<b>2020/03/13</b>	Gizarte Ekintza	Beste bilera bat egin zen desgaitasun-zentroetako arduradunekin, koronabirusak ustez kutsatutakoen aurreko kontingentzia-planak lantzeko.
<b>2020/03/13</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak Ahaldun Nagusia	Ikastetxeen itxieraren zioz, seme-alabak dituzten langileentzako salbuespeneko neurriak ezartzen dituen 2898/2020 Foru Agindua eman zen.
<b>2020/03/13</b>	Ahaldun Nagusia	Koronabirusaren hedapena Bizkaian gerarazteko xedez, ezohiko Gobernu Kontseiluak hartutako neurriak jakinarazi zitzaizkien Aldundiko langile guztiei: - Ekitaldi publikoak bertan behera geratzea edo ateratzea eta azpiegitura publikoak ixtea, besterik jakinarazi arte. - Aurrez aurreko arreta-zerbitzu eta guneak ixtea eta deialdi publikoen legezko epea luzatzea. - Garraio publikoaren zentzuzko erabilera sustatzea eta

		<p>bidaiarien arteko segurtasun-distantzia aintzat hartzera gogatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Adinekoei dei egitea etxean gera daitezen.</li> <li>- Telelana bultzatzea funtzionarioen artean.</li> <li>- Laneko eta familiako bizitza bateragarri egiteko neurriak baliatzeko malgutasun handiagoa ezartzea, ikastetxeak itxi ostean.</li> <li>- Gobernu Kontseilu birtualak egitea.</li> <li>- Bizkaiko Larrialdien Foru Plana abian jartzea.</li> </ul>
<b>2020/03/13</b>	Lehendakaria	Osasun-larrialdiaren egoera ezarri zen Euskadin.
<b>2020/03/13</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ahaldu Nagusia	Bizkaiko Lurralde Historikoko Larrialdien Foru Plana eta horri lotutako aholku-batzordea abian jarri ziren.
<b>2020/03/13</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ahaldu Nagusia	Salbuespenezko antolaketa-neurriak eta telelanaren ezarpen mailakatuari buruzko 2927/2020 Foru Agindua eman zen.
<b>2020/03/14</b>	Ahaldu Nagusia	Ahaldu nagusiak krisi mahaian parte hartu zuen lehendakariarekin, beste diputatu nagusiekin, EUDELeko buruarekin eta Espainiako Gobernuaren ordezkariarekin batera.
<b>2020/03/14</b>	Espainiako Gobernu	Espainiako gobernuburuak alarma-egoera ezarri zuen.
<b>2020/03/14</b>	Gizarte Ekintza	Eguneko zentroak itxi ziren eta bisitaldiak eten ziren adinekoren egoitzetan eta etxebizitza komunitarioetan.
<b>2020/03/14</b>	Ahaldu Nagusia Gizarte Ekintza	<i>Bizkaia Gara</i> boluntarioen sarea abian jarri zen, lurraldeko adinekoei laguntzeko xedez.
<b>2020/03/14</b>	Azpiegiturak eta Lurralde Garapena	<p>Foru-titulartasuneko bidesariak dituzten bide-azpiegituretako ordainleketan eskudirutan ez kobratzeko jarraibidea eman zen. Bide guztietan, zerbitzu automatikoa ezarri zen eta, kobratzaileak lan egin behar izatekotan, kreditu-txartelaz kobratzen hasi zen.</p> <p>Zaintza integraleko eremuetako antolaketa- eta kontingentzia-planak taxutu ziren, zerbitzua egunero 24 orduz segurtasun-baldintzetan bermatzeko. Errepideen foru-sarean, ohiko zaintza-, mantentze- eta larrialdi-lanak egiten jarraitu zen. Zeregin horiek errepideen eta autobideen segurtasuna eta funtzionaltasuna une oro bermatzeko gauzatu ziren, baita ezbeharren bat gertatuz gero zirkulazio-baldintzak lehenbailehen berrezartzeko ere; beraz, funtsezko jardueratzat jotzen dira.</p> <p>Zaldibarko hondakindegiko luizia gertatu ondoren, AP-8 autobidean hartutako neurriei eutsi zitzaizen (<i>by-pass</i> delakoa, monitorizazioa eta alerta-protokoloak), osasun-neurriak betez.</p>

2020/03/14	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Goihabe programa. Pandemiak eragindako salbuespenezko inguruabarrak kontuan hartuta, alarma-egoera deklaratu zenetik Goihabeko etxebizitzetan bizi diren 13 pertsonen etxebizitza horietan jarraituko dutela jakinarazi zitzaien erakundeei.
2020/03/15	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Ahaldun Nagusia	COVID-19 dela eta, Bizkaibusen premiazko neurriak hartzeari buruzko Foru Agindua eman zen, Euskadiko Garraio Agintaritzaren gomendioei jarraiki.
2020/03/15	Gizarte Ekintza	Arreta goiztiarreko jarduketak eteteko gomendioa eman zen eta desgaituentzako eguneko zentroetako jarduera eteteko gomendioa eman zen.
2020/03/15	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	ISEAK Fundazioaren laguntzaz, COVID-19aren krisiaren zioz, ABEEEk eragindako biztanleria langabetuaren eta kaltetuaren profilatze estatistikoa egiten hasi zen.
2020/03/16	Ahaldun Nagusia	Eguneroko krisi-mahaia antolatu zen.
2020/03/16	BFAREN Gobernu Kontseilua	Bilerak egunero-egunero egitea ezarri zen, 13:00etan.
2020/03/16	Guztiak	Administrazio-prozeduren epeak luzatzeko foru-agindua eman zen.
2020/03/16	Gizarte Ekintza Ahaldun Nagusia	Boluntarioek <i>Bizkaia Gara</i> programan parte hartzeko eskabideak jasotzeko web bidezko inprimakiak argitaratu ziren.
2020/03/16	Gizarte Ekintza Ahaldun Nagusia	Mendekotasun-egoeran dauden adinekoei, desgaitasunen bat dutenei, BTEren tutoretzapean daudenei edo familiei eta adingabeei deiak egiten hasi zitzaien (ekainaren 30era arte, 48.000 dei baino gehiago egin dira).
2020/03/16	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Neurri orokorrak jasotzen dituen jarraibidea helarazi zitzaien zerbitzu bereki eta itundutakoei birusaren kutsatzea saihesteko.
2020/03/16	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Langileria Batza eta Enpresa batzordearekiko bilera egin zen, Bizkaiko Foru Aldundian hartutako neurriei buruz eztabaidatzeko eta neurriaren ezaugarriak bidali zen sail guztietara.
2020/03/16	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Bilbao-Bizkaia eta Busturialdeko ur partzuergoekiko harremana landu izan zen egunero-egunero, egoeraren eta gorabeheren berri jakiteko.0
2020/03/16	Ekonomia Sustapena Ahaldun Nagusia	Lurraldeko eragile ekonomiko nagusiekin etengabe harremanetan egoteko bidea egokitu zen.
2020/03/16	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Protokoloa eguneratu zen, Euskadiko Garraio Agintaritzak esandakoari jarraiki.
2020/03/16	Euskara, Kultura eta Kirolak	Kultura-jarduerak sortu eta Bizkaikoaren bitartez zabaltzeko eta Bizkaia pilotalekuaren egoera aztertzeko

		plangintza egin zen.
<b>2020/03/16</b>	Ogasuna eta Finantzak	Hirugarrena kutsatua agertu zen foru-langileen artean.
<b>2020/03/16</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Gizarteratze Zuzendaritzan, krisia kudeatzeko taldea sortu zen, Gizarteratze Zuzendaritzako burutzak arteztuta eta Berdintasun zuzendariak lagunduta. Gizarteratze-arloko laguntza bereziak izapidetzeko eta eskatzeko salbuespenezko prozedura gaitu zen (erantzukizunpeko adierazpenaren tresna).
<b>2020/03/16</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Zerbitzu bereki edo propioak eta hitzartuak alarma-egoerara egokitzeko jarraibideak eman ziren.
<b>2020/03/16</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	HEGAN programaren bidez kudeatzen den Apostoliken harrera-baliabidea egokitu zen, hoteleko ostatu-zerbitzuek lagunduta (10 plaza).
<b>2020/03/16</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Barruko berrantolaketa egiteko eta proiektuak banatzeko jarraibideak eman ziren.
<b>2020/03/16</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bizkaiko Emakumeen Partaidetza Kontseilua kudeatzeko behin-behineko batzordea osatzeko hautatutako erakundeei jakinarazpena bidali zitzaien.
<b>2020/03/16</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	2020ko ekitaldian, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak onartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 3ko 20/2020 Foru Dekretuaren epeak luzatu zirela jakinarazi zitzaien erakundeei.
<b>2020/03/16</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	COVID-19ak sorrarazitako krisiaren aurrean, Enplegua Babesteko Plana egiteko prozesuari hasiera eman zitzaion.
<b>2020/03/16</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Harremanak landu ziren Behargintzako zerbitzuekin (21), garapen-bulegoekin eta udalekin (6), COVID-19ak herritarrengan eta enpresaren ingurumarian izandako eragina ezagutzeko, eragileen kezka eta aukeren berri jasotzeko eta enpresa-, merkataritza- eta gizarte-sarea suspertzen zuten proposamenak definitzeko.
<b>2020/03/16</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Prestazio ekonomikoen nominak abiatu ziren aurretiaz.
<b>2020/03/17</b>	Gizarte Ekintza	Adingabeei bisitak egiteko etendura orokorrari buruzko foru-agindua eman zen.
<b>2020/03/17</b>	Ahaldun Nagusia	Ahaldun nagusiak agindua eman zuen Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Batzar Nagusiei BFAk unean-unean gauzatutako jarduketei buruzko informazioa etenik gabe igortzeko.
<b>2020/03/17</b>	Ahaldun Nagusia	Ahaldun nagusiak agindua eman zion Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari Bizkaiko alkate guztiekin harremanetan jartzeko, ondo



		zeuden jakin eta zer beharizan zuten galdetzeko.
<b>2020/03/17</b>	Ekonomia Sustapena, Ahaldun Nagusia	Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak hartutako neurriak aztertu eta neurrien laburpena zekarren dokumentua banatu zen. Era berean, Confebask eta CEOE erakundeek proposatutako neurriak ere aztertu ziren Egunean eguneko gaurkotzea.
<b>2020/03/17</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Bidaia-txartelak autobusen atzealdean baliozkotzeko protokoloa eguneratu zen.
<b>2020/03/17</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ahaldun Nagusia	Telelana bultzatzeko antolakuntza-neurri berriak onartzeko 3024/2020 Foru Agindua eman zen.
<b>2020/03/17</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Sentikortasun handiko foru-langileak etxera bidaltzeko 102/2020 Erabakia onetsi zen.
<b>2020/03/17</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Bizkaibusen zerbitzua osorik berrezarri zen korridore nagusietan eta zerbitzua indartu zen unibertsitatera kendutako lineen bidez.
<b>2020/03/17</b>	Ahaldun Nagusia, Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Herritarrentzako aurrez aurreko zerbitzua eten egin zen Bizkaiko Foru Aldundiaren bulego guztietan eta telefono bidezko nahiz lineako arreta-zerbitzuak indartu ziren.
<b>2020/03/17</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	14 garbigune itxi ziren; nagusiak (9), ordea, zabalik geratu ziren.
<b>2020/03/17</b>	Gizarte Ekintza	Lehen 1.300 lagun izena emanda zeuden boluntarioen sarean.
<b>2020/03/17</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Lehen 325 ordenagailu eramangarriak eskuratu ziren telelana sustatzeko.
<b>2020/03/17</b>	Gizarte Ekintza	Adingabeei bisitak egiteko etendura orokorrari buruzko foru-agindua eman zen.
<b>2020/03/17</b>	Ogasuna eta Finantzak Ahaldun Nagusia	<p>Aparteko zerga-neurriak onartu ziren COVID-19aren eraginari aurre egiteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zerga-prozedurak geroratzea.</li> <li>- Norbere konturako langileen, mikroenpresen eta enpresa txikien zergen ordainketa hiru hilabetez geroratzea, bermerik gabe eta berandutza-korriturik ordaindu behar izateke.</li> <li>- Norbere konturako langileen 2020ko lehen eta bigarren hiruhilekoetako PFEZen ziozko zatikako ordainketak borondatez etetea.</li> <li>- Enpresa eta norbere konturako langileentzako itzulketak aurreratzea.</li> <li>- Zergadunentzako telefono bidezko arreta indartzea.</li> <li>- Errenta kanpainaren hasierari eustea, zergadunentzako</li> </ul>

		itzulketa bizkortzeko.
<b>2020/03/17</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Indarkeria matxistaren biktimak hartzeko eskainitako plaza kopuruari beste 20 gehitu zitzaizkion.
<b>2020/03/17</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Aparteko neurriak ezarri ziren Gizarteratze zerbitzuan.
<b>2020/03/18</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Telelanari buruzko eskuliburua helarazi zitzaizen foru-langile guztiei.
<b>2020/03/18</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Bizkaibuseko bidaiarien kopurua % 50 jaitsi zen.
<b>2020/03/18</b>	Gizarte Ekintza	Eusko Jaurlaritzako Farmazia zerbitzuari proposamena egin zitzaion mendekotasuna duten adinekoei botikak banatzeko.
<b>2020/03/18</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Aurrez aurreko funtsezko langileei buruzko 3089/2020 Foru Agindua eman zen eta zirkulatzeko baimena bidali zitzaizen langileei.
<b>2020/03/18</b>	Gizarte Ekintza	Adinekoen jarraipen-deiak egiteko langile-kopurua handitu zen.
<b>2020/03/18</b>	Gizarte Ekintza, Ahaldun Nagusia	Egoitzak koordinatzeko batzorde iraunkorra deitu zen, neurri berriak hartu eta protokoloak eguneratzeko.
<b>2020/03/18</b>	Gizarte Ekintza, Ahaldun Nagusia	Kontingentzia-plana kudeatzen hasi zen, kutsatuentzako zentro espezifikoak egokitu, egoitzetan kutsatzeko aukera murriztu eta ospitaleetako egoera arintzeko.
<b>2020/03/18</b>	Gizarte Ekintza, Ahaldun Nagusia	Psikologoek elkargoarekiko hitzarmena sinatu zen, laguntza psikologikoa eman ahal izateko behar duen pertsona orori.
<b>2020/03/18</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Deien kopurua % 46 igo zen informazio-zentroetan, batik bat, izapide elektronikoei buruzko kontsultak egiteko.
<b>2020/03/18</b>	Ogasuna eta Finantzak	Jokoaren gaineko zerga makina edo aparatu automatikoak ustiatuz ordaintzeko eta horren gaineko errenergia ordaintzeko salbuespenezko geroratzea ezartzen duen foru-agindua eman zen; horrela, 6 hilabete atzeratu zen lehen hiruhilekoko likidazioen kobrantza, interesik sortu gabe.
<b>2020/03/18</b>	Azpiegiturak eta Lurralde Garapena	Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbideko, Kukularrako eta Zeberio-Arteako lanak eten ziren.
<b>2020/03/18</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	GHADAAN programaren bidez kudeatzen den gazteentzako egoitza-baliabidea egokitu zen, programari lotutako hezkuntza-langileen laguntzaz. Era berean, aholkulariaren tresna sortu zen (6 plaza).
<b>2020/03/18</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Ekonomia Sustatzeko Sailarekiko koordinazioa landu zen: diagnostikoa eta egoeraren azterketa.

<b>2020/03/19</b>	Azpiegiturak eta Lurralde Garapena	Zirkulazioa nabarmen jaitsi zen ordainpeko bideetan: - % 63 Artxandako tuneletan; -% 49 AP-8 autobidean eta - % 43 MHSn.
<b>2020/03/19</b>	Sostenibildad	Espainiako Gobernuak COVID-19aren hondakinak kudeatzeari buruz prestaturiko komunikazioa udal eta mankomunitateetara bidali zen.
<b>2020/03/20</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Segurtasun-protokoloa eguneratu zen Bizkaibusen eta bidaiariaren arteko tarteari jaramon egiteko betebeharrak ezarri zen.
<b>2020/03/20</b>	Ahaldun Nagusia	Ahaldun nagusiak krisi-mahaian parte hartu zuen lehendakariarekin, beste diputatu nagusiekin, EUDELeko buruarekin eta Espainiako Gobernuaren ordezkariarekin batera.
<b>2020/03/20</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ahaldun Nagusia	Harremanetan jarrita 21 udalekin.
<b>2020/03/20</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Behin-behineko suhiltzaileak kontratatzeke Foru Agindua eman zen eta jarraibide berriak eman zitzaizkion garbiketaren enpresari.
<b>2020/03/20</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Krisia kudeatzeko lantaldea eratu zen eta hiru egoitzabaliabide egokitu ziren genero-indarkeriaren biktimei arreta egiteko.
<b>2020/03/20</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Ekonomia Sustapena	876 aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente aurkeztu ziren; enpresa guztien % 64 eta langileen % 67 Bizkaikoak dira.
<b>2020/03/20</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Txinako komunitateak dohaintzan emandako NBEak eta beste artikulua batzuk jaso ziren: Gizarteratze Zuzendaritza.
<b>2020/03/20</b>	Ahaldun Nagusia, Gizarte Ekintza	Bi egitasmo pilotu jarri ziren abian Sestaon eta Durangon mendekotasuna duten adinekoei botikak eskuetartzeko.
<b>2020/03/20</b>	Gizarte Ekintza	Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseilua bildu zen estatuaren kontingentzia-funtsaren banaketa onartzeko.
<b>2020/03/20</b>	Gizarte Ekintza	BEC edo beste azpiegitura batzuk egokitzeko aukera eskaini zitzaion Osasun Sailari, ospitaleen saturazioa ekiditeko.
<b>2020/03/20</b>	Gizarte Ekintza	Lehenengo erosketak egin ziren Artea merkataritzagunean (Leioa) mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzat; une hartan, 2.636 pertsona egon ziren inskribatuta boluntarioen sarean.
<b>2020/03/21</b>	Gizarte Ekintza Zerbitzu Juridikoak Ahaldun Nagusia	Bazterkeria pairatzen duten pertsonen ohiko bizileku gisa erabiltzen dituzten establezimendu turistikoek zabalik eusteko eskaera egin zen.

<b>2020/03/21</b>	Gizarte Ekintza	Lurraldeko egoitza eta etxebizitza komunitario guztiei komunikazioa bidali zitzaien informazioa biltzeko prozedura prestatzeko.
<b>2020/03/21</b>	Gizarte Ekintza	Koronabirusak jotako lehen hildakoak izan ziren Getxoko eta Bermeoko egoitzetan.
<b>2020/03/22</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Segurtasun-protokoloa eguneratu zen Bizkaibusen; bidaiarien arteko tartea betetzen dela bermatzeko neurriak indartu ziren.
<b>2020/03/22</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Harremanak landu ziren Behargintzako zerbitzuekin (21), garapen-bulegoekin eta udalekin (6). Egoeraren jarraipena egin zen eta proposamenak egin ziren enpresa-, merkataritza- eta gizarte-ehuna suspertzeko.
<b>2020/03/22</b>	Gizarte Ekintza, Ahaldu Nagusia	Komunikazioa bermatzeko, ikuskaritza indartzeko eta garbiketa-neurriak osatzeko plana onartu zen.
<b>2020/03/22</b>	Gizarte Ekintza	Sintomarik gabeko langile soziosanitarioentzako jarraibidea eman zen.
<b>2020/03/22</b>	Jasangarritasuna	EAO n argitaratutako ministerioaren agindu batean, bilketa eta tratamendua funtsezko zerbitzutzat jo zen.
<b>2020/03/23</b>	Gizarte Ekintza	Lehen kutsatua agertu zen Artatzako suhiltzaileen etxean.
<b>2020/03/23</b>	Ahaldu Nagusia Gizarte Ekintza	650.000 maskararen erosketa bideratu zen, Norbera Babesteko Ekipamendua (NBE) behar zuten profesionalen etengabeko eskariari erantzuteko.
<b>2020/03/23</b>	Gizarte Ekintza Ahaldu Nagusia	Egoitza eta beste zentro soziosanitario batzuetako garbiketa neurriak osatzeko Foru Agindua eman zen. Era berean, era subsidiarioan, garbiketa gauzatu zen Bizkaiko egoitza guztietan, suhiltzaileen, Basalanen eta enpresa espezializatu baten bitartekoen bidez.
<b>2020/03/23</b>	Gizarte Ekintza	Egoitzak desinfektatzen hasi zen. 1.534 desinfekzio-saio egin dira ekainaren 22ra arte.
<b>2020/03/23</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	COVID-19 prebenitzeko neurri garrantzitsuenak biltzen dituen gogorarazpen-dokumentua bidali zitzaien foru-langile guztiei.
<b>2020/03/23</b>	Gizarte Ekintza	Zentroen Batzorde Iraunkorrak bilera egin zuen familiekiko elkarreragintasun-moduak aztertzeko eta laguntza psikologikoa ematen duen lantaldea abian jartzeko.
<b>2020/03/23</b>	Ahaldu Nagusia Gizarte Ekintza	Zentroentzako jarraibidea eman zen egoiliarren eta senideen arteko harremana bermatzeko 48 ordurik behin, dei, bideo bidezko hitzaldi edo beste baliabide telematikoko batzuk erabiliz, eta jarraibide horren garapena ikuskatzeko era ezarri zen.

<b>2020/03/23</b>	Ahaldun Nagusia, Ekonomia Sustapeneko diputatua	Bilera egin zen Cecobi, Bizkaidendak, eta Bilbaodendak tokiko merkatarien elkarteekin eta Bizkaiko Ostalaritza Elkartearekin.
<b>2020/03/23</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	2.490 pertsona zeuden telelanean, hau da, BFaren langileen % 92.
<b>2020/03/23</b>	Ahaldun Nagusia Gizarte Ekintza	Aukera bideragarriak bilatu eta diseinatu ziren kontingentzia plana egoitzetan garatzeko.
<b>2020/03/23</b>	Ogasuna eta Finantzak	Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak jarraibide bat argitaratu zuen, COVID-19aren ziozko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean onartutako ezohiko neurriak nola aplikatu argitzeko.
<b>2020/03/23</b>	Azpiegiturak eta Lurralde Garapena	Kukularrako eta Zeberio-Arteako lanei berriro ekin zitzairen, osasun-neurriak betetzen zirela bermatuta.
<b>2020/03/23</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	2 etxebizitza egokitu ziren etxebizitza partekatu gisa eguneko zerbitzuetako erabiltzen autonomoentzat, zerbitzu horietako gizarte-, hezkuntza- eta baliabide-laguntza emanda. (12 plaza).
<b>2020/03/23</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Ekonomia Sustatzeko Sailarekiko koordinazioa landu zen: diagnostikoa eta egoeraren azterketa.
<b>2020/03/24</b>	Gizarte Ekintza	Bigarren kutsatua agertu zen Artatzako suhiltzaileen etxean.
<b>2020/03/24</b>	Ahaldun Nagusia Ekonomia Sustapena	Bilera egin zen lurraldeko enpresa garrantzitsuekin: Iberdrola, Petronor, Sidenor, Eroski, Portua eta CIE.
<b>2020/03/24</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	“Maskara 19” kanpaina abiatu zen, genero-indarkeria prebenitzeko.
<b>2020/03/24</b>	Gizarte Ekintza	Bizkaiko alkateei gutuna bidali zitzairen, egoitzak garbitzeko laguntza eskatuz (foru-agindua).
<b>2020/03/24</b>	Gizarte Ekintza	Balorazio eta orientazio zerbitzuko langileei beste zeregin batzuk esleitzeko neurriei buruzko Foru Agindua eman zen.
<b>2020/03/24</b>	Bizkaiko Lurralde Fiskaltza	Ofizioa bidali zen egoitza-zentroetara heriotzen berri eta heriotzak gertatzen direneko zentroyen berri emateko.
<b>2020/03/24</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Pertsona sentikorrei buruzko 114/2020 Ebazpen berria eman zen.
<b>2020/03/24</b>	Juntas Generales de Bizkaia	Batzar Nagusietako Mahaiak presentziazko lana telelanean ordeztzeko eta egoitza ixteko erabakia hartu zuen.
<b>2020/03/24</b>	Ahaldun Nagusia	Aribidean zeuden lizitazioei buruzko jarraibidea eman zen: - Balioespena eginda zuten lehiaketetan, esleipena edo adjudikazioa ematea, nahiz eta kontratua sinatu ez,

		<p>epaimahaiaren jarduera etenda zegoelako.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Balioespena eginda zuten lehiaketetan, errekurtsio bereziari lotuta egon ezean edo lizitatzailerak bakarria egonda, adjudikazioa formalizatzea.</li> <li>- Gainerako prozeduretan, lizitazioa etetea proposatu zen.</li> </ul>
<b>2020/03/24</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Kaleko azoketako salmenta saihesteko helburuz, Eusko Jaurlaritzaren gomendioa eta sailak egindako aukeren azterketa bidali zitzaizkien udal guztiei; ildo horretan, esan beharra dago hainbat akordio lortu zirela saltegi handiekin produktuok merkaturatzeko .
<b>2020/03/25</b>	Ahaldun Nagusia, Diputado Gizarte Ekintza	Bilera egin zen egoitzetako ugazabekin egoera aztertzeko eta hartu beharreko neurriak hartzeko.
<b>2020/03/25</b>	Ahaldun Nagusia, Gizarte Ekintza	Zentroak ikuskatzeko eta jarraibide soziosanitarioak eraz betetzen direla bermatzeko indartze-plana onartu zen.
<b>2020/03/25</b>	Ekonomia Sustapena	Eusko Jaurlaritzako eta foru aldundiekiko bilera egin zen neurriak koordinatzeko.
<b>2020/03/25</b>	Gizarte Ekintza, Ahaldun Nagusia	Eskutitza bidali zen egoitza-zentro guztietara, balizko larrialdi-egoerak antzemateko ikuskapen-plan berriari buruzko azalpenak emanda.
<b>2020/03/25</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Lineako prestakuntza-ikastaroak eskaini ziren zuzendaritzako idazkari-postuetan aritzen ez diren administrazio-azpieskalako 850 pertsonentzat.
<b>2020/03/25</b>	Gizarte Ekintza, Ahaldun Nagusia	Bizkaiko Fiskaltzak igorritako ofizioa osorik bidali zen zentro guztietara.
<b>2020/03/25</b>	Euskara, Kultura eta Kirolak	Kultura-eragileekiko bilera egin zen uneko egoera aztertzeko.
<b>2020/03/25</b>	Euskara, Kultura eta Kirolak	Sailak hainbat zerbitzu ematen jarraitu zuen linean: museoen eskaintza, BOSen bideoak, Azkue Fundazioa eta, Kirolbideren bitartez, etxean egiteko ariketa fisikoari buruzko bideoak.
<b>2020/03/26</b>	Euskara, Kultura eta Kirolak	Koordinazio-bilera egin zen Eusko Jaurlaritzarekin eta kultura-eragileekin.
<b>2020/03/26</b>	Ekonomia Sustapena	Telefono bidezko 746 elkarrizketa egin zitzaizen Bizkaiko enpresei, uneko egoeraren berri jasotzeko, zalantzak argitzeko eta iradokizunak hartzeko.
<b>2020/03/26</b>	Ekonomia Sustapena	Bigarren bilera egin zen Eusko Jaurlaritzarekin eta ekonomia-eragileekin.
<b>2020/03/26</b>	Ahaldun Nagusia	Bilera egin zen Cebek-eko buru Iñaki Garcinuñorekin.
<b>2020/03/26</b>	Ahaldun Nagusia	Ahaldun nagusiak esker-gutuna bidali zien egoitzetako langileei.

<b>2020/03/26</b>	Ahaldun Nagusia	Dirulaguntzen foru-dekretu bat argitaratu zen egoitzetan erabiltzeko tabletak eta beste komunikazio-sistema telematiko batzuk eskuratzeko.
<b>2020/03/26</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	COVID-19ak sorrarazitako egoera dela eta, lanak segurtasunez garatzeko neurriak hartzen dituztela bermatzen duen agiri berariazkoa eskatu zitzaizen kontratei.
<b>2020/03/26</b>	Gizarte Ekintza	Kontingentzia planari hasiera emateko Gobernu Batzordea egin zen.
<b>2020/03/26</b>	Gizarte Ekintza, Ahaldun Nagusia	Kontingentzia-plana egoitzetan abian jartzeko helburuz, beharrezko lekualdaketak egin ziren.
<b>2020/03/26</b>	Gizarte Ekintza, Ahaldun Nagusia	Harremanetan jarri ginen hileta-zerbitzuekin, hala behar izanez gero, Bizkaiko egoitza guztientzako erazko zerbitzua aurreikusi eta bermatu ahal izateko.
<b>2020/03/26</b>	Ekonomia Sustapena	<p>Krisiari aurre egiteko laguntza-neurriak erabaki ziren:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sozietateen gaineko Zergaren 64 bis artikulua esparruan aurkeztutako I+G+b ildoko proiektuen ebaluazioa, BEAZ erakundeak kudeatzen duena, bi hilabetetik hilabetera murriztu zen.</li> <li>- 6 hilabetez luzatu zen 2019ko ekitaldiko berrikuntza-, sorkuntza- eta nazioartekotze-programak gauzatzeko epea eta gastuari lotutako kontzeptuak arindu ziren.</li> <li>- Seed Mikrok emandako maileguen eta Seed Capital Bizkaiak kudeaturiko I, BI eta FEIS funtsen kuotak itzultzeko epea 6 hilabetez ere geroratzea.</li> <li>- BIC Bizkaia, BIC Bizkaia Ezkerraldea eta Design Kabi enpresa-mintegietako alokairu-kuoten ordainketa, hasiera batean, 3 hilabetez geroratzea.</li> <li>- Laguntza-programen eta hornitzaileentzako ordainketak ahalik eta azkarren egiteko konpromisoa hartzea.</li> </ul>
<b>2020/03/26</b>	Ogasuna eta Finantzak	Foru-agindu bat eman zen ondokoak xedatzeko: batetik, indarrik gabe utzi zen ekainaren 30eko data Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren kanpainen amaiera-data gisa, eta, bestetik, ebatzi zen aitopenen egiteko aurrez aurreko zerbitzuak erakunde laguntzaileen bidez ematen hasi eta, gutxienez, bi hilabete geroago amaituko zela kanpaina.
<b>2020/03/26</b>	Ogasuna eta Finantzak	Jarduera ekonomikoak erabat kontrolatzeko eta zergadunei laguntzeko <i>Batuz</i> sistemaren nahitaezko ezarpena urtebetez luzatzea erabaki zen, hain zuzen ere, 2022ko urtarrilaren 1era arte. Bestetik, <i>Batuz</i> sistemaren borondatezko erabilera, hasiera batean, 2020ko uztailearen 1erako ezarritakoa, hiru hilabetez atzeratu zen, hots, 2020ko urriaren 1era arte. Horrela, enpresa eta langile autonomoek hamabost hilabeteko epea izango



		dute sistema berrira egokitzeko. Era berean, 2022ra arte gerorotuta, zergadunek Batuz sistema ezartzeko gastu guztietarako kenkariak aplikatzeko epea ere luzatuko da. Gastu gisa hartzeaz gain, zerga-oinarria murriztuta, PFEZren edo Sozietateen gaineko Zergaren kuotan 2020an eta 2021ean egindako gastuen % 30eko murrizketa aplikatu ahal izango dute. Lehen, 2020an egindako gastuak baino ez ziren kontuan hartzen.
<b>2020/03/27</b>	Azpiegiturak eta Lurralde Garapena Ahaldun Nagusia	Laugarren eta bosgarren kutsatuak agertu ziren foru-langileetan.
<b>2020/03/27</b>	Gizarte Ekintza	Birusak kutsaturiko hirugarrena agertu zen Basauriko suhiltzaileen etxean.
<b>2020/03/27</b>	Ahaldun Nagusia	Ahaldun nagusiak krisi mahaian parte hartu zuen lehendakariarekin, beste diputatu nagusiekin, EUDELeko buruarekin eta Espainiako Gobernuaren ordezkariarekin batera.
<b>2020/03/27</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Bizkaiko 48 alkaterekin harremanetan jarrita.
<b>2020/03/27</b>	Gizarte Ekintza	Bizkaiko Fiskaltzak igorritako ofizioa osorik bidali zen zentro guztietara.
<b>2020/03/27</b>	Ekonomia Sustapena	Orekan sareko 62 lagunek osaturiko taldea eratu zen Elkargiren finantzaketa-plataformari buruzko prestakuntza jasotzeko; beste alde batetik, BEAZeko lau pertsonak prestakuntza jaso zuten Elkargiri laguntza emateko zalantzak argitzen eta aholkularitza tekniko eskaintzen.
<b>2020/03/27</b>	Ahaldun Nagusia Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	BFaren barruan garatzen ari ziren 197 kontratu identifikatu ziren eta guztiei eusteko erabakia hartu zen.
<b>2020/03/27</b>	Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua	Osasun sailburuaren Agindua argitaratu zen egoitza-zentroetan hartu beharreko neurrien eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari esleitzen dion Ministerioaren Agindua zabaldu eta interpretatzeko.
<b>2020/03/27</b>	Euskara, Kultura eta Kirolak	Saila harremanetan hasi zen kirol-federazioetako presidente guztiekin egoeraren berri jakiteko eta iritziak trukatzeko epe laburrean nahiz luzean.
<b>2020/03/27</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	'Maskara 19' kanpaina zabaldu zen Bizkaiko Farmazialarien Elkargoarekin batera, indarkeria matxista pairatzen ari diren edo pairatzeko arriskuan dauden emakumeei laguntzeko.
<b>2020/03/27</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Jarraipena bidali zitzaien 40/2019 eta 43/2019 forudekretuen esleipendunei, lineako prestakuntza edo teleprestakuntza egiteko aukeraren berri emateko.



<b>2020/03/28</b>	Bizkaiko Foru Aldundia Eusko Jaurlaritza	Kontingentzia-plana abiarazi zen eta Birjinetxe eta Unbeko egoitzak egokitu ziren ospitaleratu behar ez diren kutsatuak hartzeko, batetik, ospitaleetako presioa arintzeko eta, bestetik, egoitzetan gerta daitezkeen kutsatzeen arriskua gutxitzeko. 184 plaza egokitu ziren. COVID-19k sorrarazitako osasun-larrialdiaren kudeaketa dela eta, lekualdatzeak egiteko antolakuntza-neurri osagarriei buruzko 30/03 Foru Agindua eman zen. 31/03 Foru Agindua
<b>2020/03/28</b>	Ahaldun Nagusia Ogasuna eta Finantzak	Apirilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretu Arauemailea, COVID-19ak sorrarazitako osasun-larrialdiaren ziozko aparteko tributu-neurri osagarriei buruzkoa, onartu zen. Dekretu horren bidez, zerga-araudian ezarritako epeak betetzeko malgutasun-neurriak onartu ziren, berrinbertsioari, ohiko etxebizitzari eta Europako funtsei dagokienez, konfinamendu-egoerak zergadunen eskubideei kalte egin ez ziezaien.  Gainera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 64.bis artikuluko betekizunak malgutu egin zituen, pandemiaren inguruabarretan berrikuntza-prozesuak errazteko, eta sozietateen gaineko zergaren aitorten-epea, 2019ko ekitaldikoa, luzatu egin zen mikroenpresentzat eta enpresa txikientzat.
<b>2020/03/28</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Eusko Jaurlaritzak hondakinen inguruan emandako gomendioak zabaldu ziren,
<b>2020/03/28</b>	Ogasuna eta Finantzak	Seigarren eta zazpigarren kutsatuak agertu ziren foru-langileetan.
<b>2020/03/28</b>	Gizarte Ekintza	Fiskaltzara datu osagarriak bidaltzeko komunikazioa igorri zen zentroetara.
<b>2020/03/28</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilboko elizbarrutiarekiko bilera egin zen harrera-baliabide gehiago sortzeko.
<b>2020/03/29</b>	Ahaldun Nagusia	Ahaldun nagusiak gutuna bidali zien egoitzetan ospitaleratuko pertsonen familiei, bertan, uneko egoeraren berri emanda eta ordura arte hartutako neurriak azalduta
<b>2020/03/29</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Lantokira ezinbestean joan behar diren langileen kopurua ahalik eta gehien murrizteko barruko komunikazioa igorri zen.
<b>2020/03/29</b>	Azpiegiturak eta Lurralde Garapena	Berreskuratu daitezkeen baimen ordaindua arautzen duen 10/2020 Legegintzako Errege Dekretua indarrean sartzean, obra guztien egikaritzea eten egin zen. Behar bezala seinaleztatuta geratu ziren, galtzadan zeuden obra-elementu guztiak kendu ziren, eta obra guztietan zaintza-lanak egin ziren, obra bakoitzaren beharrezko mantentze-lanak eginda:

		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezkerraldeko Parke Teknologikorako sarbidea.</li> <li>- Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen 1b aldia.</li> <li>- Bermeoko bidea, Tellaetxetar Josu kalean.</li> <li>- Kukularrako lotura berrantolatzeke II. aldia.</li> <li>- Ondarroako pasabidea.</li> <li>- BI-630 Malabrigo-Traslaviña.</li> <li>- BI-3524 Zeberio-Artea errepidea hobetzea.</li> <li>- N-240 errepidea (Lemoa-Zeanuri) hobetzea.</li> <li>- N-634 errepidea (Berna-Euba) hobetzea.</li> <li>- BI-633 errepidea (Markina-Berriatua) hobetzea.</li> <li>- BI-631 errepidea (Trobika-Larrauri) hobetzea.</li> <li>- Artxandako biribilguneak BI-3741 errepidean.</li> <li>- Avanzadako galtzadak berrantolatzea.</li> <li>- Santurtzi-Arena bidegorria.</li> <li>- Muxikako bidegorria.</li> <li>- Gamiz-Fikako bidegorria.</li> <li>- Altzagako etxebizitzak (Erandio).</li> </ul>
<b>2020/03/30</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Pertsona sentikorrei buruzko 118/2020 Ebazpen berria eman zen.
<b>2020/03/30</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Martxoaren 30tik aurrerako funtsezko zerbitzuei buruzko Foru Agindua eman zen eta langileek zirkulatu ahal izateko ziurtagiri berri prestatu zen
<b>2020/03/30</b>	Gizarte Ekintza	Balmaseda, Basauri eta Galdakaoko egoitzetan izandako gorabehera larriak direla eta, laguntza eta jarraipena indartu behar izan ziren zentro horietan eta informazioa helarazi zen Osasun Sailera.
<b>2020/03/30</b>	Gizarte Ekintza	Ikuskapenak hasi ziren egoitza-zentroetan, larrialdi-egoerak antzeman ahal izateko. 03/30 eta 04/07 egunen artean, 14 ikuskapen-bisita egin ziren.
<b>2020/03/30</b>	Bizkaiko Nagusien Kontseilua	BFA egiten ari den lanean konfiantza izan eta babesteko komunikazioa bidali zen.
<b>2020/03/30</b>	Ekonomia Sustapena	Lau bilera egin ziren eskualdeko eragileekin tokian tokiko egoerak sakonago ezagutzeko eta laguntza zehatza emateko.
<b>2020/03/30</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta berdintasuna	Egoitza-zentroetan, beste 3 plaza egokitu ziren desgaitasun larriak dituzten pertsonentzat.
<b>2020/03/30</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta berdintasuna	Alarma-egoera dela eta emandako lan-, zerga- eta ekonomia-araudiari buruzko lineako informazio- eta orientazio-zerbitzua sortu zen. (www.dema.eus).
<b>2020/03/31</b>	Ogasuna eta Finantzak	Zazpigarren kutsatua agertu zen foru-langileen artean.

<b>2020/03/31</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Lineako prestakuntza-ikastaroa eman zen laguntzaile eta urgazleentzat.
<b>2020/03/31</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Langile guztiei jakinarazpen bidali zitzaien lantokira joateko debekua gogorarazteko (funtsezko langileei izan ezik).
<b>2020/03/31</b>	Ahaldun Nagusia	Bizkaia aurrera! aktibatze-planaren lehen zirriborroa aurkeztu zen.
<b>2020/03/31</b>	Ogasuna eta Finantzak	2019ko ekitaldiko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren lehen aitortpenak, 22,8 milioi eurokoak itzuli ziren; hau da, 21 milioi gehiago itzuli ziren, aurreko urtearekin alderatuta.
<b>2020/03/31</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta berdintasuna	Hirugarren sektoreko lantaldeak aintzateste bidea egiten zen: #aurrera! kanpaina.
<b>2020/04/01</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Bederatzigarren kutsatua agertu zen foru-langileen artean.
<b>2020/04/01</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ahaldun Nagusia	Udal Harremanen eta Larrialdien Zuzendaritzak NBEen koordinazioaren ardura hartu zuen.
<b>2020/04/01</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Biskaibuseko neurriak eguneratu ziren eta autobusetara sartzeko programa informatikoa prestatu zen bidaiarien arteko segurtasun-tartea bermatzeko.
<b>2020/04/01</b>	Gizarte Ekintza Ahaldun Nagusia	Akordioa sinatu zen Sondikako hotel batekin, familiako kideak kutsatu ez eta etxetik kanpo lo egin nahi duten profesional soziosanitarioak hartzeko. 2020/04/02ko Foru Agindua.
<b>2020/04/01</b>	Ogasuna eta Finantzak	Foru Agindu bat onartu zen eta, horren bidez, COVID-19ak sorrarazitako osasun-larrialdiaren ziozko jardura ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisiko, mikroenpresa eta enpresa txikientzako autolikidazioak edo aitortpenak aurkezteko epea luzatu zen. Hala, 2020ko ekainaren 1era arte luzatu zen lehen hiruhilekoko autolikidazioak aurkezteko epea.
<b>2020/04/01</b>	Ogasuna eta Finantzak	COVID-19aren ziozko presazko zerga-neurriei buruzko martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailean jasotako presazko neurriak aplikatzeko jakinarazpen telematikoak egiteko salbuespenezko arauak ezartzen dituen Foru Agindua onartu zen, kontuan izanik postaz-zerbitzuak izan zituen mugak jakinarazpenak zergadunen helbideetan entregatzeko, eta, horregatik, edozein herritarrek jakinarazpenak egoitzan kontsultatzeko aukera eman zen, baina jakinarazpen telematikoa egitera behartuta egon ezean, jakinarazpenaren ondorioak ez diren betetzat jo ekainaren 1era arte.
<b>2020/04/01</b>	Enplegua, Gizarteratzea	Beldur Barik Batzorde Politiko Teknikoak bilera egin zuen

	eta Berdintasuna	eta programa abiatu zen.
<b>2020/04/02</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak Gizarte Ekintza	Testak egiten hasi ziren Uribitarte 15ean.
<b>2020/04/02</b>	Ahaldun Nagusia Gizarte Ekintza	Egoitzak kudeatzen dituzten enpresaburuekiko batzarra egin zen informazioa trukatu eta hartu beharreko neurriak adosteko.
<b>2020/04/02</b>	Gizarte Ekintza	Martxoan, egoitzetan hildakoei buruzko txostena plazaratu zen eta azken zortzi urteotan hildakoen hileko datuak argitaratu ziren.
<b>2020/04/02</b>	Gizarte Ekintza	Adinekoen eta desgaituen egoitzetan eta etxebizitza komunitarioetan COVID-19ak kutsatutakoak kudeatzeko jarraibideak eman ziren.
<b>2020/04/02</b>	Gizarte Ekintza	Bizkaiko lurraldean dauden adingabeen bederatzi zentroak desinfektatu ziren.
<b>2020/04/02</b>	Gizarte Ekintza Ahaldun Nagusia	Egoitzan lan egin eta aldi baterako bajaran zeuden langileei deitu genien, kutsatze-testa egiteko; ehun bat test egin ziren egunean-egunean.
<b>2020/04/02</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Berdintasunerako Zuzendaritza koordinazio-bilerak egiten hasi zen astero, eta egunero-egunero zuzendaritzako teknikariek
<b>2020/04/02</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilboko Udalarekiko (Ekonomia Sustapena) bilera egin zen, diagnostikoa egin, egoera aztertu eta proposamenak aztertze.
<b>2020/04/03</b>	Ahaldun Nagusia	Ahaldun nagusiak krisi mahaian parte hartu zuen lehendakariarekin, beste diputatu nagusiekin, EUDELeko buruarekin eta Espainiako Gobernuaren ordezkariarekin batera.
<b>2020/04/03</b>	Gizarte Ekintza Ahaldun Nagusia	248.000 maskara kirurgiko banatu ziren egoitzetan profesional eta erabiltzaileentzat.
<b>2020/04/03</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Zerbitzugintzaren ehunekoa jaisteko ebazpena eman zen, Euskadiko Garraio Agintaritzaren gomendioei jarraiki.
<b>2020/04/03</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Telelanean aritzeko ordenagailuen beharrezanean erantzun eta Lantikeko langileek gailu guztiak aktibatu zituzten.
<b>2020/04/03</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Prebentzio-maskarak erabiltzeko jarraibidea eman zen, Euskadiko Garraio Agintaritzaren gomendioei jarraiki.
<b>2020/04/03</b>	Gizarte Ekintza Ahaldun Nagusia	Lan-poltsa prestatu zen egoitzetako langileria indartzeko eta poltsa kudeatzeko web bidezko plataforma sortu zen. Ikasketen azken ikasturtean dabilzan UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza fakultateko ikasleak kontratatzeke neurri buruzko Foru Agindua eman zen. Mendekotasuna duten pertsonen gizarte erakundeetan

		arreta emateko Arreta Soziosanitarioko ikasketen azken ikasturtean dabiltzan ikasleak kontratatzeko neurriei buruzko Foru Agindua eman zen, urriaren 19ko 1368/2007 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraiki.
<b>2020/04/03</b>	Ahaldun Nagusia	Bizkaia aurrera! premiaz aktibatzeke planaren zirriborroa Gobernu Kontseiluari igorri zitzaion.
<b>2020/04/03</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Lineako informazio- eta orientazio-zerbitzua egokitu zen DEMAn.
<b>2020/04/03</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen DEMArekin eta Ekintzaitzaren Euskal Behatokiarekin bilera, diagnostikoa, egoera eta ekintzaileei buruzko proposamenak aztertzeke.
<b>2020/04/03</b>	Euskara, Kultura eta Kirolak	Koordinazio-bilera egin zen Eusko Jaurlaritzarekin eta gainerako aldundiekin batera Euskadiko kirolaren egoera aztertzeke.
<b>2020/04/03</b>	Ogasuna eta Finantzak	Foru agindu bat onartu zen eta, horren bidez Ogasuneko zuzendari nagusiaren esku utzi zen COVID-19 koronabirusaren aurka jarduteko hartutako neurrien ondorio ekonomiko negatiboen eraginez, konkurtsoan zeuden enpresekin sinatutako hitzarmen berezien aldaketa baimentzeko eskumena, hitzarmenetan jasotako zenbatekoak ordaintzeko epeak finantza-egoera berrira arin egokitu ahal izateke.
<b>2020/04/03</b>	Ogasuna eta Finantzak	Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak beste jarraibide bat eman zuen, martxoaren 28an eta apirilaren 1ean onartutako salbuespenezko neurriei buruzko administrazio-irizpideak eta argibide gehigarriak argitara emanda, herritarrei ahalik eta segurtasun juridiko handiena emateko xedez.
<b>2020/04/04</b>	Gizarte Ekintza	Jarraibide eta laguntza guztien berri ematen duen komunikazioa igorri zen egoitza guztietara.
<b>2020/04/04</b>	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala	Eusko Jaurlaritzak bidalitako NBEak hondakin-bilketako langileei banatu zitzaizkien.
<b>2020/04/04</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	275/SND/2020 eta 322/SND/2020 ministro-aginduak betez, egoitza-establezimenduetan hartutako pertsonen eta zentroen egoera eguneratuari buruzko zerrendak bidaltzen hasi ziren egunero-egunero, COVID-19ak kutsatutakoen inguruan.
<b>2020/04/05</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	COVID-19ari buruzko gunea aktibatu zen foru-webgunean.
<b>2020/04/06</b>	Gizarte Ekintza	Eneko Atxa sukaldariak bideo bidezko aurreneko hitzaldia eman zuen adingabeen etxean menu osasungarriak prestatzeko eta, bide batez, aisialdiko une atsegina eskaintzeko adingabeei, itxialdiaren ondorio larriak pairatzen ari dira eta; Atxak astelehen, asteazken eta

		ostiraletan egin ditu tailerrak.
<b>2020/04/06</b>	Ahaldun Nagusia	Ahaldun nagusiaren agerraldia eskatu zen Batzar Nagusietan, koronabirusak eragindako krisialdian, Bizkaiko Foru Aldundia egiten ari den kudeaketa azaltzeko.
<b>2020/04/06</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Bizkaiko 84 alkaterekin harremanetan jarrita.
<b>2020/04/06</b>	Ekonomia Sustapena	Bilera egin zen Eusko Jaurlaritzarekin eta turismo-eragileekin.
<b>2020/04/06</b>	Gizarte Ekintza	42.000 maskara kirurgiko banatu ziren desgaituen 86 zentrotan eta beste 14.500 maskara 58 etxebizitza komunitariorotan. 1.420 FFP2 maskara, COVID-19ak jotako kasuren bat zuten egoitza-zentroentzat eta 1.660 mantal iragazgaitz berrerabilgarri.
<b>2020/04/06</b>	Euskara, Kultura eta Kirolak	Harremanetan jarri ginen kirol-federazioetako presidenteeekin eskola kirolari, kirol federatuari, klubuen egoerari eta hauteskunderi buruzko informazioa eta iritzia eskatzeko.
<b>2020/04/06</b>	Euskara, Kultura eta Kirolak	<i>Bizkaia Txapeldun</i> ekimena abiarazi zen txikien sormena sustatzeko. Horretarako, ipuin- eta marrazki-lehiaketa antolatu da Aldundiaren webgunean, lurraldeko idazle eta artistekin elkarlanean.
<b>2020/04/06</b>	Azpiegiturak eta Lurralde Garapena	Apirilaren 6ko astean, errepideen foru sareko trafikoaren murrizketarik handiena izan zen, zirkulazioak % 80ko beheraka izan zuela (% 84 ibilgailu arinetan eta % 69 astunetan). Orduetik aurrera, trafikoa etengabe baina astiro berreskuratzen hasi zen, motelago ordainpeko bideetan,
<b>2020/04/07</b>	Ahaldun Nagusia	Bizkaiko Ahaldun nagusiaren hedabideen aurreko agerraldia egin zen, kazetarien galdera irekiei erantzuteko.
<b>2020/04/07</b>	Ogasuna eta Finantzak	Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko Koordinazio Ekonomikoaren lantaldea eratu zen, COVID-19ak sorrarazitako larrialdiari aurre egiteko.
<b>2020/04/07</b>	Finantzen Lurralde Kontseilua	Udalerriekiko bilera egin zen diru-bilketa txikiagoko eta sarrera publiko gutxiagoko ingurumaria aztertzeko. Kontseilua egin ostean, gutuna bidali zen udal guztietara zuhertasun-neurriak ezartzeko gomendioa emanda, 2020ko aurrekontuko gastuaren kapitulu guztietan.
<b>2020/04/07</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak ,Ahaldun Nagusia	Bizkaiko Foru Aldundian lehengora itzultzeko balizko ingurumarien eta aukeren azterketa egin zen.

<b>2020/04/07</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Egunean zehar, 2.762 pertsona aritu ziren lanean BFaren telelaneko sarean.
<b>2020/04/07</b>	Ogasuna eta Finantzak	COVID-19ak sorrarazitako osasun-larrialdiaren zioz, zerga-administrazioak egindako likidazio jakin batzuk borondatezko epean ordaintzeko epea luzatzen duen foru agindua onartu zen; horrela, ordainketa 2020ko ekainaren 1era arte luzatu zen.
<b>2020/04/08</b>	Ahaldun Nagusia	Bizkaia Aurrera! Planari atxikitako lantaldeen definitu ziren.
<b>2020/04/08</b>	Ahaldun Nagusia	Ahaldun nagusiak krisi mahaian parte hartu zuen lehendakariarekin, beste diputatu nagusiekin, EUDELeko buruarekin eta Espainiako Gobernuaren ordezkariarekin batera.
<b>2020/04/08</b>	Gizarte Ekintza	Zentroetako desinfekzioa indartu zen kutsatuak zeudenekoetan; eremu komunak ez ezik, logelak eta alboko eremuak ere garbitu ziren.
<b>2020/04/08</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Apirilaren 24ko zerbitzuen eskaintza berreskuratzeko ebazpena eman zen, eskaria aurrerantzean handituko delakoan, Euskadiko Garraio Agintaritzaren gomendioei jarraiki.
<b>2020/04/08</b>	Ogasuna eta Finantzak	Finantzen, Aurrekontuen eta Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak jarraibide bat argitaratu zuen, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak osorik edo zati batez izapidetutako prozeduretan administrazio-baldintzak eta -epeak eteteko aukera aplikatzeari buruzkoa, bai eta COVID-19 koronabirusak sorrarazitako Nazioarteko Osasun Larrialdia dela-eta, zerga-izaerako ezohiko neurriak aplikatzeari buruzkoa ere.
<b>2020/04/09</b>	Gizarte Ekintza	Ikuskaritza Zerbitzua egoitzak ikuskatzen hasi zen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin batera. 04/09 eta 04/13 egunen artean, 8 ikuskapen-bisita egin ziren.
<b>2020/04/09</b>	Gizarte Ekintza	FFP2 maskaren banaketa orokorra: 7.120 maskara 155 egoitzetan, 900 maskara desgaituen 86 zentroetan eta 860 maskara 58 etxebizitza komunitariotan. Banaketa horretan, Maier eta Walterpack enpresek dohaintzan emandako biserak ere partitu ziren.
<b>2020/04/10</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	304 bidaiari zenbatu ziren Bizkaibusen linea guztietan; era berean, sailak esker ona adierazi zion sektoreari COVID-19ak eragindako krisian egindako ahalegin eta izandako ekinagatik.
<b>2020/04/10</b>	Gizarte Ekintza	Adingabeen zentroetan lan egin eta aldi baterako bajan zeuden langileei deitu genien, kutsatze-testa egiteko
<b>2020/04/11</b>	Azpiegiturak eta Lurralde	Tokiko zirkulazioaren murrizketari buruzko datuak eman



	Garapena	ziren: -%74 (-% 70 paseko zirkulazioa). Zirkulazioaren murrizketari buruzko datuak bidesaridun errepideetan (-% 76). - Artxandako tunelak: -% 83 - MHS: -% 66. - AP8: -% 76.
<b>2020/04/11</b>	Gizarte Ekintza	Ohar berriei buruzko komunikazioa eta laguntzen gogorarazpena egin zen zentro eta egoitzetan; NBEak, probak eta testak, garbiketa eta desinfekzioa, profesionalen poltsa, zantzuen aurreko protokoloak eta datuen jakinarazpena.
<b>2020/04/12</b>	Gizarte Ekintza	3.723 pertsona boluntario gisa izena emanda <i>Bizkaia Gara</i> ekimenean.
<b>2020/04/12</b>	Gizarte Ekintza	1.444 pertsona izena emanda egoitzetako langileen lan-poltsan (14 mediku, 30 OLT, 1.197 zaintzaile eta zehaztu gabeko beste 203). Kontratuak 18 egoitzatan egiteko harremanak bideratu ziren.
<b>2020/04/12</b>	Gizarte Ekintza	Osasun Sailaren proposamena jaso zen kutsatu eta pertsona sentikor edo mendekoentzako egoitza bat egokitzeko proposamena jaso genuen. Aukerak aztertzen hasi ginen.
<b>2020/04/14</b>	Ahaldun Nagusia Gizarte Ekintza	Bilera egin zen egoitzetako enpresaburuekin informazioa trukatzeko eta uneko egoera aztertzeko.
<b>2020/04/14</b>	Azpiegiturak eta Lurralde Garapena	Ordaindutako baimen berreskuragarria amaitu ondoren, obra guztiak apurka-apurka hasi ziren berriro. Jarraibidea helarazi zitzaizen gauzatzen ari ziren lanen zuzendari guztiei, lanak berriro ere hasitakoan, segurtasun-neurri guztiak bete daitezela eskatu eta betearazteko; ildo horretan, apirilaren 20a begiz jo zen obra guztiak berriro ere martxan egoteko.
<b>2020/04/14</b>	Gizarte Ekintza	Komunikazioa igorri zen adinekoen eta desgaituen zentro guztietara berrogeialdiaren azkenaldian dauden profesional kutsatuei testak egiteko, lanean hasi baino lehen.
<b>2020/04/14</b>	Gizarte Ekintza	Koronabirusak eragindako osasun-krisialdiko hondakinen kudeaketari buruzko komunikazioa egin zen, eta hondakinak kentzeko jarraitu beharreko urratsak modu errazean jasotzen dituen infografia bidali zen.
<b>2020/04/14</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Jarduerari berriro heltzeko modua diseinatzen ari diren lantaldeen bilera izan zen eta lantokietako eremuak prestatzen hasi ziren.
<b>2020/04/14</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	MAKER komunitateak egindako NBEen dohaintza jaso zen. COVID-19euskadi.net.



<b>2020/04/14</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	ABEEeri lotutako enplegu-murrizketa/-etendurako egoeran edo langabedian dauden eraikuntzako, industriako eta merkataritzako sektoreetan aritzen diren pertsonentzako lineako prestakuntza-eskaintza abiarazi zen. ERAIKUNE, FVEM eta Merkataritza Ganberarekin lankidetzan.
<b>2020/04/14</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Harremanak landu ziren Behargintzako zerbitzuekin (21), garapen-bulegoekin eta udalekin (6). Egoeraren jarraipena egin zen eta proposamenak egin ziren enpresa-, merkataritza- eta gizarte-ehuna suspertzeko.
<b>2020/04/15</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ahaldun Nagusia	Bizkaiko 112 alkateekin harremanetan jarrita.
<b>2020/04/15</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	COVID-19ren larrialdi-egoera dela eta, tokiko erakundeek egindako jarduketan barruko eremuaren esparruan, presazko eta salbuespenetzko neurriak hartzeko Foru Agindua eman zen.
<b>2020/04/15</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak Lantik	Asertibitate eta ofimatikari buruzko lineako ikastaroa hasi zen.
<b>2020/04/16</b>	Gizarte Ekintza	Bigarren banaketa masiboa hasi zen: 248.500 maskara kirurgiko, 7.315 FFP2 maskara, 1.030 mantal iragazgaitz eta 510 bisera.
<b>2020/04/16</b>	Ahaldun Nagusia	Ahaldun nagusiaren agerraldia Batzar Nagusietan, berak eskatuta, koronabirusak eragindako krisialdian, Bizkaiko Foru Aldundia egiten ari den kudeaketa azaltzeko.
<b>2020/04/16</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Foru higiezinaren azterketa xehatua egin zen, Prebentzio Zerbitzuak emandako jarraibideen arabera, langileak euren lanpostuetara itzul zitezten ahalbidetzeko. Planoak egin ziren eta beharrak kuantifikatu, aurrekontuak eskatzeari begira. Enpresek baliozkotzeko egin beharreko prototipoen proposamena egin zen.
<b>2020/04/16</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bazterkeria pairatzen duten pertsonentzako larrialdiko harrera-zentro berria ireki zen.
<b>2020/04/16</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Berdintasunerako VI. Foru Plana prestatzeko bilerak egin ziren: Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasun Saila.
<b>2020/04/17</b>	Ogasuna eta Finantzak	COVID-19aren larrialdiari aurre egiteko Ekonomia Koordinatzeko Erakunde arteko Lantaldeak 2.000 milioi euroko ekarpenak birdoitzea erabaki zuen, gerorapenen bidez. Erabakia Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren ohiko batzarrean berrikusiko da.
<b>2020/04/17</b>	Gizarte Ekintza	GUFEEko Gobernu Batzordearen ezohiko bilera egin zen, Santurtziko Laguntza Zentroaren irekiera onartzeko.

<b>2020/04/17</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ogasuna eta Finantzak	BEZ zergari lotutako sistema informatikoak doitu ziren, itzulketak bizkortzeko.
<b>2020/04/17</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ogasuna eta Finantzak	Langile autonomoentzako errenta-proposamenak sortzen eta berrikusten amaituta.
<b>2020/04/17</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ogasuna eta Finantzak	PFEZri lotutako sistema informatikoak egokitu ziren, Ogasunean sortutako proposamenen kopurua handitu eta langile autonomoei bidaltzeko.
<b>2020/04/17</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ogasuna eta Finantzak	Aurkezpenaren epemuga berrien aldaketei erantzuteko beharrezkoak izan ziren egokitzapen informatikoak egin ziren, Sozietateen gaineko Zergaren esparruan. Prozesu hori askotan egin da.
<b>2020/04/17</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ogasuna eta Finantzak	Sistema informatikoak aldatu ziren, zergen ordainketaren gerorapena eskatzeko baldintzak errazteko eta arintzeko helburuz. Prozesu hori askotan egin da.
<b>2020/04/17</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Kutsatutako profesionalei proba diagnostikoak egiteko eskaera egin genion Osakidetzari.
<b>2020/04/17</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Osasuna dela eta, eragindako plazei buruzko informazio-eskaeraren inguruko jakinarazpena bidali genion Arartekoari.
<b>2020/04/18</b>	Gizarte Ekintza	Unitate soziosanitario espezializatua ireki zen Santurtzin pertsona kaltebera eta COVID-19ak jotakoentzat, hainbat arrazoirengatik, sendaldia etxean egin ezin dutela.
<b>20/04/2020</b>	Azpiegiturak eta Lurralde Garapena	Obrei apurka-apurka berrekin ostean, sailaren obra guztiak abian zeuden data horretan, Interbiak eta Azpiegiturak erakundeei dagozkienak barne.
<b>2020/04/20</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Osasun Ministerioak bidalitako maskara akastunen erabilerak eragindako zerbitzuekin harremanetan jarri ginen, maskara horiek kendu eta beste bidalketa batzuk egin ziren, aurrekoak ordeztzeko helburuz.
<b>2020/04/20</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Eraikinetarako sarbideetan tenperatura kontrolatzeko elementuak instalatzeko aukerak aztertu ziren. Aukera teknologikoak, kostuak eta ezaugarriak aztertu ziren eta prebentzio-zerbitzuari proposatu zitzaizkion. Higiezinetan instalatu beharreko elementu finkoen erosketa kudeatu zen eta horien instalazioa eta funtzionamendua gainbegiratu.
<b>2020/04/20</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Laguntza eman zitzaien udalei, euren prozeduretan elkarreragingarritasun-zerbitzuak ezar zitzaizkion.
<b>2020/04/20</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Larrialdiko zentro batean, kutsatu baten berri eman zitzaion Osakidetzari eta hezkuntzako langile guztiak kautelazko bajaran egon zirela jakinarazi.

<b>2020/04/20</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Harremanetan jarri ginen Elikagaien Bankuarekin eta Gurutze Gorriarekin, hainbat senegaldarren muturreko egoerari erantzuteko.
<b>2020/04/21</b>	Gizarte Ekintza	Etxeko mendekotasun-balorazioak egiten hasi ginen, sintomarik ez dagoela egiaztatu ostean eta beharrezko babes- eta prebentzio-ekipamendua baliatuta.
<b>2020/04/21</b>	Ogasuna eta Finantzak	Foru Agindu bat onartu zen eta, horren bidez, nekazariak eta abeltzainek 2020rako gasolioa erosteagatik jasaten dituzten hidrokarburoen gaineko zergaren kuoten zati bat itzultzeko eskaera aurkezteko epea aldatu zen. Oro har, itzulketa hori maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartean egiten da, eta aurten irailaren 14tik urriaren 30era bitartean egingo da, baina itzultzeko benetako datak abendukoa izaten jarraituko du.
<b>2020/04/21</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Itxiturak jartzeko guneak aztertu ziren.
<b>2020/04/21</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Ekonomia eta enplegua babesteko premiazko neurri osagarriei buruzko apirilaren 21eko 15/2020 Errege Lege Dekretuari dagokionez, laguntza eman zitzaizen sailei eta foru-erakundeei kontratazioaren arloan.
<b>2020/04/21</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Maskara kirurgikoak erabiltzeko jarraibidea eman zen SPISZn.
<b>2020/04/22</b>	Gizarte Ekintza	Bideo bidezko informazio-bilera egin zen Adinekoen Kontseiluarekin.
<b>2020/04/22</b>	Ogasuna eta Finantzak	Etxean errenta aitortpenaren proposamenen bidalketa osatu zen, eta, guztira, 382.000 errenta-proposamen igorri ziren etxeetara, langile autonomoen taldea ere sartuta. Horren ondorioz, 40.000 proposamen berri egin dira, besteak beste, 30.000 langile autonomo eta haien ezkontideak. Profil hori proposamenak egitetik kanpo geratu da aurreko urteetan. Horietatik 26.000 itzuli beharrekoak izan dira, eta, beraz, kanpainaren lehen egunetan, autonomoek 28 milioi euro jaso dituzte, beste urte batzuetan baino azkarrago, egungo egoera dela eta.
<b>2020/04/22</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ogasuna eta Finantzak	Santurtziko egoitzan ekipamendu teknologikoa egokitu zen.
<b>2020/04/23</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Hainbat sailtako zereginak berrikusi ziren, arretaren segurtasunaren arabera egokituta.
<b>2020/04/23</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen Askabiderek, maskaren manufaktura abian jartzeko.
<b>2020/04/23</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen ELA sindikatuko ordezkariekin. Enplegua Babesteko Plana.

<b>2020/04/23</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen BIZKAIA DENDAK elkartearekin, diagnostikoa egin eta uneko egoera zein merkataritza-arloko proposamenak aztertzeko.
<b>2020/04/23</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	EON proiektua abiarazi zen, garapen pertsonalerako eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen oinarritzko premiei erantzuteko, COVID-19ak kutsatuta egonik (20 plaza).
<b>2020/04/24</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Erakundean sintomak dituen pertsonaren aurrean jarduteko prozedura prestatu zen, lanera itzultzeari begira.
<b>2020/04/24</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Ikastetxe bakoitzeko lana suspertzeko plana gertatzeko plana egin zen, ikastetxeetako prebentzio-neurrien ikuspegitik.
<b>2020/04/24</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Sailetako Zerbitzu Orokorrekiko koordinazioa landu zen, jarduerari eta telelanari buruzko informazioa jasotzeko, eta bilera egin zen, zentro bakoitzeko lana suspertzeko plana egiteko.
<b>2020/04/27</b>	Gizarte Ekintza	Jakinarazpena bidali zen adinekoen egoitzetara, bisitetarako argibideak eguneratuta eta aurretiaz komunikatzeko beharra ezarrita.
<b>2020/04/27</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Langileen VPN konexioen datuak aztertu ziren. Lantaldeak normaltasunera itzultzeko plana prestatzeko jarduketak landu ziren.
<b>2020/04/27</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Aurrez aurreko jarduerari ekin behar zieten lantalde berriak aztertu ziren.
<b>2020/04/27</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Langile sentikorrei buruzko ebazpen berria eman zen, aurrez aurreko funtsezko lanpostuen inguruabarrean (121/2020).
<b>2020/04/27</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Egoitza elektronikoa izapideak irekita zituzten foru sailei jakinarazi zitzaizen osasun-larrialdiko egoeraren luzapen berria kontuan hartu behar zela, administrazio-epen etetea errespetatze aldera.
<b>2020/04/27</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Osasun-larrialdiaren egoeraren luzapen berria argitaratu zen egoitza elektronikoaren abisuen atalean, administrazio-epen eteteari dagokionez, eta Aldundia COVID-19ari buruzko orri berrian hartzen ari zen neurrien berri eman zen.
<b>2020/04/27</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Bizkaiko webguneko eta bulego birtualetako komunikazioekiko koordinazioa landu zen, webgune horietan herritarrei helarazi beharreko informazio eta abisuak direla eta.
<b>2020/04/27</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilboko Udalarekiko (Ekonomia Sustapena) bilera egin zen, diagnostikoa egin, egoera aztertu eta proposamenak

		aztertzeke.
<b>2020/04/28</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Bizkaia Aurrera ataria argitaratu zen.
<b>2020/04/29</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Segurtasun eta Osasun Batzordea batzartu zen.
<b>2020/04/29</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta berdintasuna	Bilera egin zen DEMArekin eta aukera berrekintzaileak aztertzeke Reenpresarekin.
<b>2020/04/30</b>	Gizarte Ekintza	Adinekoen Zentroen Batzorde Iraunkorraren bilera egin zen.
<b>2020/04/30</b>	Gizarte Ekintza	Arreta Goiztiarreko Zentroen Batzorde Iraunkorraren bilera egin zen.
<b>2020/04/30</b>	Gizarte Ekintza	248.000 maskara kirurgiko, 7.120 FFP2 maskara eta 2.897 mantal iragazgaitz banatu ziren.
<b>2020/04/30</b>	Gizarte Ekintza	COVID-19 koronabirusaren aurkako prebentzio-neurri gisa, Bizkaiko egoitza-zentroak desinfektatzeko zerbitzu-kontratua egin zen (Premiazko prozedura).
<b>2020/04/30</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ogasuna eta Finantzak	Kobrantsa-data desberdinak dituzten sistema informatikoak egokitu ziren, kobrantsa errazteko enpresa-motaren arabera, Sozietateen gaineko Zergaren esparruan.
<b>2020/04/30</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ogasuna eta Finantzak	Herritarrek eta enpresek gehien eskatzen dituzten zerga-ziurtagirien posta elektronikoko bidezko bidalketa erraztu zen.
<b>2020/04/30</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ogasuna eta Finantzak	PFEZren eta ondarearen kanpainari buruzko informazioa etengabe eguneratu zen. Helbide elektronikoko bat adierazteko aukera eman zitzaizen herritarrei, zerga horien epe berrien berri emateko.
<b>2020/04/30</b>	Ogasuna eta Finantzak	2019ko ekitaldiko Balio Erantsiaren gaineko Zergari atxikitako ia aitopen guztien itzulketa, 66,9 milioi eurokoa osatu zen; hau da, aurreko urtearekin alderatuta, 63,8 milioi euro gehiago itzuli dira.
<b>2020/05/04</b>	Gizarte Ekintza	Bilera egin zen desgaitasun-arloko erakundeekin.
<b>2020/05/04</b>	Gizarte Ekintza	75.750 maskara kirurgiko, 3.470 FFP2 maskara eta 740 mantal iragazgaitz eta 940 bisera banatu ziren.
<b>2020/05/04</b>	Ogasuna eta Finantzak	230.000 zergadunei 215 milioi euroko zenbatekoa itzuli zitzaizen. Kopuru hori Foru Ogasunak kanpaina osoan zehar itzultzeko begiz jota daukan duen 432 milioiko zenbatekoaren ia erdia da, itzulketak egiteko prozesuak arintzearen erakusgarri; izan ere, horrela, COVID-19aren osasun-larrialdiaren ziozko krisi ekonomikoaren egungo unean, zergadunen likidezia sustatzen da. Itzulketak bizkortzeko ahalegin hori langile autonomoentzat egin zen; izan ere, kanpaina honetan, Errenta Etxean

		proposamenen hartzaileen kolektiboan txertatu dira autonomoak, hain zuzen ere, PFEZren itzulketa aurreratzeko helburuz. Hala, lehen itzulketen artean 26.000 langile autonomorenak eta haien ezkontideenak ditugu, eta maiatzaren lehen egunetan 28 milioi euro itzuli zitzaizkien.
2020/05/04	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Lantoki bakoitzeko prebentzio-plana lantzen hasteko komunikazioa igorri zitzaizen Zerbitzu Orokorrei.
2020/05/04	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Eraikinetan ezarri beharreko balizko elementuak aztertu ziren, segurtasun-neurriak eta gizarte-tartea bermatzeko. Materialei, neurriei, finkatzeko bitartekoei eta abarri buruzko aukerak aztertu ziren, eta arreta berezia jarri zen materialen eskuragarritasun-irizpideetan eta arrazoizko epeetan hornitzeko aukeran. Aurrekontuak eskatu ziren maiatzaren 6tik aurrera, ezaugarriak ebaluatu, aldaketa teknikoak txertatu eta maiatzean eta ekainean instalazioa kudeatu zen foru-higiezin guztietan. Elementuok instalatzeko lehentasunak ezarri ziren.
2020/05/04	Enplegua, Gizarteratzea eta berdintasuna	Bilera egin zen Gizardatzekin eta beste 39 erakunderekin, deseskalatze-plana aurretiaz finkatzeko.
2020/05/04	Ogasuna eta Finantzak	Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren agerraldia izan zen Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantza Batzordean, sailak COVID-19 pandemiaren inguruan egindako jarduerak azaltzeko.
2020/05/05	Ahaldun Nagusia Ogasuna eta Finantzak	COVID-19ak sorrarazitako osasun-larrialdiaren ondoko suspertze ekonomikora bideratutako zerga-neurri koiunturalei buruzko maiatzaren 5eko 4/2020 Foru Dekretu Arauemailea onartu zen, Bizkaia Aurrera! planaren zerga-neurriak bertan txertatuta. Bestek beste, honako hauek nabarmendu behar dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sozietateen gaineko Zergaren 2019ko kuota efektiboaren ezohiko kenkaria pandemiaren eraginpean daudenentzat, 2020ko galerak konpentsatzeko, enplegua sortzeko, aktibo ez-korronte berrietan inbertitzeko, I+G+b proiektuak egiteko edo finantzatzeko eta ekintzailletza sustatzeko.</li> <li>- Renove Etxea Plana gremioei laguntzeko.</li> <li>- Enplegua sortzeagatik gehitutako kenkaria.</li> <li>- Merkataritzaren digitalizazioa sustatzeko kenkaria.</li> <li>- 2020an eskuratutako aktibo berrien amortizazio azeleratua.</li> <li>- COVID-19a ikertzeko jardueren eta arte- eta kirol-jarduera jakin batzen aitortza lehentasunezko jarduera gisa.</li> </ul>

<b>2020/05/05</b>	Ahaldun Nagusia Ogasuna eta Finantzak	Maiatzaren 5eko 5/2020 Foru Dekretu Arauemailea onartu zen. Horren bidez, presazko neurriak hartu ziren Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Bereziatan, COVID-19ari aurre egiteko.
<b>2020/05/05</b>	Azpiegiturak eta Lurralde Garapena	17/2020 Legegintzako Errege Dekretua argitaratu ondoren, etendako lizitazioak berrabiarazi ziren administrazio publiko guztietan, eta pixkanaka berreskuratu zen obren eta zerbitzuen kontratazioa.
<b>2020/05/05</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Sailei eta foru-erakundeei kontratazioaren arloko laguntza eman zitzaien maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege Dekretuaren arauzko berrikuntzei dagokienez (17/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 5ekoa, COVID-19ren ekonomia- eta gizarte-eraginari aurre egiteko zerga- eta kultura-sektorea laguntzeko neurriak onartzen dituen).
<b>2020/05/05</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ogasuna eta Finantzak	Sistema informatikoak aldatu ziren, langile autonomoen PFEZren berrikuspena eta itzulketa arintzeko.
<b>2020/05/06</b>	Gizarte Ekintza	Jakinarazpena bidali zen adinekoen egoitzetara, aholku-dokumentua erantsita, bisitak antolatzeke eta ahalbidetzeko prozedura presta zezaten.
<b>2020/05/06</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Zentroen ikuskapena hasi zen: Gertu Bermeo; Gertu Gernika, Nicolas Alkorta, Uribitarte 15, Ganberaren eraikina, Mazarredoko HABak, Iparragirre, eta Gertu bulegoak.
<b>2020/05/06</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 3890/2020 Foru Agindua, maiatzaren 6koa eman zen. Horren bidez, martxoaren 30eko 3278/2020 Foru Aginduaren bosgarren puntuan ezarritakoa betetzen da (premia atzeraezin eta premiazkoetarako aurrez aurreko zerbitzuetako APRiko langileak).
<b>2020/05/07</b>	Ogasuna eta Finantzak	Indarrean dauden zenbait gerorapen eta zatikapenen 2020ko apirilko kuotaren epemuga atzeratzen duen foru agindu bat onartu zen; horrela, beste aukera bat eskaini zen apirilaren 27an helbideratutako kuota maiatzaren 12an ordaintzeko, errekar gurik edo interesik gabe.
<b>2020/05/07</b>	Ogasuna eta Finantzak	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenak telefonoz edo Internet bidez egiteko ezohiko sistema bat jarri zen martxan, bereziki ABEEEek edo antzeko egoerek eragindako pertsonentzat, dagozkien itzulketak egin ahal izateko, erakunde laguntzaileen bidez aurrez aurreko prestaketa-zerbitzuak ireki arte itxaron gabe.
<b>2020/05/07</b>	Herri Administrazioa eta	Aurrez aurreko jarduerara itzultzeko kontingentzia-plana



	Erakunde Harremanak	prestatu zen.
<b>2020/05/07</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ogasuna eta Finantzak	Sozietateen gaineko Zergari lotutako sistema informatikoetan, beharrezkoak egokitzapenak egin ziren, hartutako zerga-aldaketei erantzuteko.
<b>2020/05/07</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Neurriak eguneratu ziren Bizkaibusen, TMA-384-2020 arauaren arabera; horren bidez, garraio publikoaren erabiltzaileek maskara erabili behar dutela ezarri zen.
<b>2020/05/07</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Bizkaiko Garraio Publikoko Bulegoen sarearekin koordinatuta, Portugaleteko eta Sodupeko HABak eta aireportuko eta Bilboko Intermodaleko kabinak irekitzeko aginduak eman ziren, eta haien protokoloak eguneratu ziren.
<b>2020/05/08</b>	Gizarte Ekintza	Martxoaren 17ko 17444/2020 Foru Agindua indargabetzen duen foru-agindua eman zen; azkenaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren babespean dauden adingabeentzako bisitak, oro har, etenn ziren, COVID-19aren ziozko osasun-krisiagatik, eta bisitak mailakako deseskalatzearen egoerara egokitu ziren.
<b>2020/05/08</b>	Ogasuna eta Finantzak Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Bizkaiko Lurraldeko Finantzen Kontseilua bildu zen, Udalkutxaren 2019ko likidazioaren emaitza den zenbatekoa udalen eskueran jartzea xedatzeko, Udalkutxa 2020ren likidazioaren balizko saldo negatiboa konpentsatzeko eta, horren ondorioz, aurtengo maiatzetik abendura bitarteko zatikapenak udalei ez ordaintzeko.
<b>2020/05/08</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Segurtasun eta Osasun Batzordea bildu zen, prebentzio-planaren esparru orokorra zentroka lantzeko.
<b>2020/05/08</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Bizkaiko Finantzen Lurralde Kontseiluak bilkura berezia egin zuen era birtualean, 2020ko maiatzaren 8an, Udalkutxaren 2019ko likidazioaren emaitza den zenbatekoa udalen eskueran jartzea xedatzeko, Udalkutxa 2020ren likidazioaren balizko saldo negatiboa konpentsatzeko helburuz.
<b>2020/05/11</b>	Gizarte Ekintza	Adinekoen, desgaitasuna duten pertsonen eta etxebizitza komunitarioen egoitzei jakinarazpena bidali zitzaizen, negatibotze-testerako irizpideak eta isolamendu-jarraibideak jasota.
<b>2020/05/11</b>	Ahaldun Nagusia Gizarte Ekintza	Maskarak banatzen hasi ziren Bizkaiko hainbat garraio publikotan: Metro Bilbaon, Bizkaibusen eta Bilbobusen.
<b>2020/05/11</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Negoiazio Mahai Orokorra bildu zen, kontingentzia-planaren esparru orokorra lantzeko.
<b>2020/05/11</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Bertatik bertarako bisitak egin ziren zentro batzuetan, arriskuan dauden lanpostu batzuk egiaztatzeko. Kartelak jarri ziren.



2020/05/11	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Nikolas Alkorta zabaltzeko prest.
2020/05/11	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Egoitza elektronikoa izapideak irekita zituzten foru sailei jakinarazi zitzaien osasun-larrialdiko egoeraren luzapen berria kontuan hartu behar zela, administrazio-epeen etetea errespetatze aldera.
2020/05/11	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Osasun-larrialdiaren egoeraren luzapen berria argitaratu zen egoitza elektronikoa abisuen atalean, administrazio-epetak eteteari dagokionez, eta Aldundia COVID-19ari buruzko orri berria hartzen ari zen neurrien berri eman zen.
2020/05/11	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Bizkaiko webguneko eta bulego birtualetako komunikazioekiko koordinazioa landu zen, webgune horietan herritarrei helarazi beharreko informazio eta abisuak direla eta.
2020/05/11	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen BYPE, Bizkaiko Irudi Pertsonaleko Enpresen Elkartearekin, egoera aztertze eta Enplegua Babesteko Planean jasotako neurriak abiarazteko.
2020/05/11	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Harremanak landu ziren Behargintzako zerbitzuekin (21), garapen-bulegoekin eta udalekin (6). Uneko egoeraren azterketa eta Enplegua Babesteko Planean jasotako neurriak abiaraztea: 3R programa: TOKIKO ENPLEGUA.
2020/05/12	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Uribitarte zabaltzeko prest.
2020/05/12	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Langileak beren lantokietatik ateratzeko jarraibideen prestaketa amaitu zen.
2020/05/12	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Jauregia, Ibilgailuen Atala eta Ugasko 3 bertatik bertara ikuskatu zen, zabaltzeko prest uzteko.
2020/05/12	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Prebentzioko ordezkariak jakinarazi zitzaientzako amaitutako zentroak berrikus zitzaientzako.
2020/05/12	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Jendearentzako arreta-bulegoen irekierari buruzko gaiak zehazteko, eta eragin bereziko sail guztietan sartu beharreko langileak zehazteko bilerak egin ziren, jendearentzako irekiera-aldi desberdina izan dutelako.
2020/05/12	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Udalkutxaren 2019ko likidazioak 25.987.137 euroko aldeko saldoa ematen zien Bizkaiko udalerriei, eta partekatutako arriskuaren arabera erabiliko da 2020ko ekitaldian, osasun-larrialdiko egoerak direla eta, aurreikusitako emaitza negatiboa konpentsatzeko, onartutako aurrekontuarekin alderatuta.
2020/05/12	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ogasuna eta Finantzak	Sistema informatikoak egokitu ziren informazioa kontrastatzeko, mendekotasuna duten seme-alabak dituzten eta ABEEren egoeran dauden pertsonentzako

		laguntzen kudeaketa errazteko.
<b>2020/05/12</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Bizkaibus zerbitzuen % 100 berreskuratzeko ebazpena eman zen, UPV/EHU Leioa, Aireportua eta gaueko zerbitzuetako zati bat alde batera utzita, Euskadiko Garraio Agintaritzaren gomendioak aintzat hartuta.
<b>2020/05/12</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen Gurutze Gorriarekin.
<b>2020/05/12</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Autoenpleguari buruzko 2020 Foru Dekretua (34/2020 Foru Dekretua, maiatzaren 12koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena) aldatzeko proposamena onartu zen.
<b>2020/05/13</b>	Gizarte Ekintza	Bideo bidezko informazio-bilera egin zen Adinekoen Kontseiluarekin.
<b>2020/05/13</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Eraikinak erabiltzeko jarraibideak, kanporako bisitei buruzkoak, bulegoko langile eta beste norbanako batzuen bisitei buruzkoak eman ziren; gainera, lantokiak prestatu ziren, prestaketa-bileren bidez eta zentroen hasierako planak nahiz zentroak berraktibatze planak prestatu ziren.
<b>2020/05/13</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Negoiazio Mahai Orokorra batu zen Kontingentzia Planaren esparru orokorra lantzeko.
<b>2020/05/13</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Itxiturak eskuratu eta instalatu ziren foru-eraikinetan.
<b>2020/05/13</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Eraikinen mantentze-lanetako kontratuan, prebentziozko mantentze-lanei berrekiteko agindua eman zen.
<b>2020/05/13</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Webex tresna martxan jarri zem, kontratazio-mahai birtualak egiteko, eta foru-erakundeei mahai horiek erabiltzen laguntzeko.
<b>2020/05/13</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Aurrez aurreko jarduera berriz hasi zen Gizarteratze Zerbitzuaren bulegoetan.
<b>2020/05/14</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Maiatzaren 18an, astelehenarekin, EHUko Unibertsitate Campusa ireki zen Leioan, eta horren ondorioz, unibertsitate-zentro horretako zerbitzuen zati bat berreskuratu zen.
<b>2020/05/14</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Aparteko garbiketa-lanak egiteko agindua eman zitzaion garbiketa-enpresari.
<b>2020/05/14</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ogasuna eta Finantzak	Errentako programa informatikoak aldatu ziren, Ogasunak aitortpenak egiteko eta aurkezteko gaitu zituen aparteko telefono-zerbitzuek erabil zituzten.
<b>2020/05/14</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen Emakumezko enpresaburu eta zuzendarien elkartearekin. Enplegua Babesteko Plana.
<b>2020/05/14</b>	Gizarte Ekintza	Erakunde arteko Batzorde soziosanitario teknikoa batzartu zen. Osasun Saila eta foru-aldundiak.

<b>2020/05/15</b>	Gizarte Ekintza	GUFeren Gobernu Batzordearen ezohiko bilera egin zuen, Santurtziko laguntza-zentroa ixtea onartzeko, COVID-19ak jotako kutsatu kalteberak ospitale-altaren aurreko baliabide gisa.
<b>2020/05/15</b>	Azpiegiturak eta Lurralde Garapena	Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako diputatuak agerraldia egin zuen Batzar Nagusietan, COVID-19ak sorrarazitako osasun-larrialdiaren zioz hartutako neurrien berri emateko.
<b>2020/05/15</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Eraikinetako garbiketa-beharrak sakon aztertu ziren, prebentzio-zerbitzuaren jarraibideen arabera. Maiztasunak eta horiek aurrekontuetan duten eragina ere aztertu ziren. Errefortzua egiteko larrialdi-kontratuaren kudeaketa teknikoa eta ekonomikoa bideratu zen. Kontingentzia Plana ezarri zen.
<b>2020/05/15</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Kontingentzia Plana onartu zen, 4087/2020 Foru Arauaren bidez. Maiatzaren 19tik aurrera, aurrez aurreko jardueran hasi behar ziren langileen zerrenda prestatu zen.
<b>2020/05/15</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	COVID-19aren inguruko kartel berriak diseinatu eta instalatu ziren Bizkaibuseko autobus guztietan.
<b>2020/05/18</b>	Ogasuna eta Finantzak	Foru Agindu bat eman zen eta, horren bidez, baimena eman zen bankuko helbideratze jakin batzuk kontura zorduntzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketako Araudiaren 17.1 artikuluan ezarritakoaz bestelako data batean, artean egin gabe zeuden likidazioen ordainketa errazteko errekar gurik egin gabe.
<b>2020/05/18</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Hainbat lantoki prestatu ziren maiatzaren 25ean irekitzeko, materiala banatu zen eta jarraibideak igorri ziren.
<b>2020/05/18</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Sarbideak, igarobideak, garbiketarako material-guneak eta gainerako lantokietako lanpostuak prestatzeko lanak egin ziren. Lantokietako seinaleak jarri, zentroetako arduradunak zehaztu, garbiketa-errefortzuak ezarri, zainzaileek sarbidea kontrolatzeko funtzioak zehaztu eta abar egin ziren.
<b>2020/05/18</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen Euskal Herriko Itsas Foroarekin, Gaiarekin, Galdatzaileen Elkartarekin eta AEDrekin, Enplegua Babesteko Planaren egoera aztertzeko eta neurriak abiarazteko.
<b>2020/05/19</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	4094/2020 Foru Arauaren eraginpeko langileak berriro laneratu ziren, 14 urtetik beherako edo mendeko adinekoak ardurapean dituzten langileak izan ezik.
<b>2020/05/19</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Aireztapen mekanikoko ordutegien maiztasuna handitu zen foru-eraikinetan, COVID-19aren aurkako neurri gisa.

<b>2020/05/19</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Ayala eraikineko zaintza- eta segurtasun-ordutegia handitzeko zaintza-kontratua aldatu zen.
<b>2020/05/19</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Zaintza-enpresari agindua eman zitzaion foru-erakinetera sartzen diren pertsonen tenperatura neurtzeko.
<b>2020/05/20</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Zerbitzu Orokorrekiko koordinazioa landu zen, maiatzaren 25etik aurrera sail guztietan hasi beharreko langileak zein diren zehazteko. Maiatzaren 25etik aurrera, aurrez aurreko jardueran aritu behar ziren langileen zerrenda onartu zen (4136/2020 FA).
<b>2020/05/20</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Jarraibide batzuk birformulatu ziren, araudia aldatzen doan heinean, gure kanpoko prebentzio-zerbitzuari eta Osasun Ministerioari kontsulta egin ondoren.
<b>2020/05/20</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Materialez hornitu eta aurrez aurreko jardueran daudenei eta hala eskatzen dutenei banatu zitzairen.
<b>2020/05/20</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Bizkaibusen ibilgailuetan hartu beharreko segurtasun-neurriak, aire girotua erabiltzeko protokoloak eta autobusak birusen aurkako produktuak erabiliz egunero garbitzeko eragiketak eguneratu ziren.
<b>2020/05/20</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bizkaiko Emakumeen Partaidetza Kontseilua kudeatzeko behin-behineko batzordearen bilera egin zen.
<b>2020/05/21</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	
<b>2020/05/21</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Foru-telefono finkoen desbideratzea desaktibatze/aktibatze prozedurari buruzko informazio-oharra bidali zen.
<b>2020/05/21</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Gizarte Ekintza	Mendekoak COVID-19 egoitzetara lekualdatzeko prozedura berria teknologikoki egokitu zen.
<b>2020/05/21</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen Elikaduraren Klusterrarekin, Aklima Ingurumen Klusterrarekin, Energiaren Klusterrarekin eta Eraikune Klusterrarekin, egoeraren azterketa egiteko eta Enplegua Babesteko Planeko neurriak abiarazteko.
<b>2020/05/21</b>	Ahaldun Nagusia Gizarte Ekintza	3.950 pertsona boluntario gisa izena emanda Bizkaia Gara programan. Elikagaien 754 erosketa egin ziren Eroskiren 6 saltokitan, eta boluntarioek etxean entregatu zituzten, Bizkaiko 50 udalerritan baino gehiagotan.
<b>2020/05/21</b>	Ogasuna eta Finantzak	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenak erakunde laguntzaileetan egiteko aurrez aurreko zerbitzuak uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean emango zirela zehaztu zen, eta foru-agindu bidez ezarri zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko

		Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren kanpaina irailaren 30ean amaituko dela, eta data horretan zordunduko direla ordaindu beharreko helbideratzeak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kasuan, ordainketa bi epetan egitea erabakitzen duten zergadunentzat izan ezik. Lehen epea (% 60) irailaren 30ean izango da, eta gainerako % 40, berriz, azaroaren 30ean.
<b>2020/05/22</b>	Ahaldun Nagusia	Agindu eman zitzaion zaintza-enpresari, zaintza eta segurtasuna berrantolatzeko egoitza jakin batzuetan, pandemiak eta normaltasun berriak irauten duten asteetan.
<b>2020/05/22</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Pertsona sentikorrei buruzko 125/2020 Ebazpena eman zen, maiatzaren 25ean, aurrez aurreko lana hasi aurretik.
<b>2020/05/22</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Zentroko arduradunak eta pertsona horientzako jarduketa-sistema ezartzeko, bai eta materiala jasotzeko eta banatzeko modua –bereziki, maskarena– ezartzeko maiatzaren 22ko 126/2020 Ebazpena eman zen.
<b>2020/05/22</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Lantokietako garbiketa-errefortzuak zehaztu ziren.
<b>2020/05/22</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Arriskuko pertsona sentikorrei buruzko 127/2020 Ebazpena eman zen, maiatzaren 25ean, aurrez aurreko lana hasi aurretik.
<b>2020/05/22</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Harremanetan jarri ginen Osakidetzarekin, SPISZko langileei probak antolatzeko eta probak egiten hasteko helburuz.
<b>2020/05/22</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Balizko kutsatu gisa agertu ziren langileak bertaratu aurretik testak egitera bideratu ziren, gure osasun-zerbitzuen medikuntza-irizpideari jarraiki.
<b>2020/05/22</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	14 urtetik beherakoak edo mendeko adinekoak ardurapean dituzten langileen dokumentazioa koordinatu eta aztertu zen, hala eskatuz gero, telelan bidezko era esklusiboan jarduteko.
<b>2020/05/22</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Jendearentzako arreta-guneak egokitzeko neurriak, jendeari arreta emateko langileak eta ikuskatzaileak babesteko neurriak, antolaketa-alderdiak eta informazio-neurriak eguneratu ziren. Kabinetako jarduera eta ikuskapen-jarduera maiatzaren 25etik aurrera hasi zen.
<b>2020/05/24</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Sarbidean tenperaturaren kontrola garatzeko 128/2020 Ebazpena, maiatzaren 24koa, eman zen.
<b>2020/05/25</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Bermeo, Gernika eta Durangoko GERTU guneak prestatzen amaitu zen, bai eta Jauregia eta beste lantoki batzuetako jendearentzako arreta-guneak ere, eta beste lantoki gehienetako lantoki-planen atariko lanak gertatu

		ziren.
<b>2020/05/25</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	4136/2020 Foru Arauaren eraginpeko lehen txandako langileak berriro laneratu ziren, 14 urtetik beherako edo mendeko adinekoak ardurapean dituzten langileak izan ezik.
<b>2020/05/25</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Eraikinetako jarraibideei, irteerei, maskareei eta zentroetako arduradunei buruzko informazioa eman zitzaien langile guztiei; gainera, informazio- eta azalpen-bideoak egin ziren.
<b>2020/05/25</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Temperaturaren jarraibidea prestatu zen zaintzaileentzat eta mantentze-lanetako langileentzat. Sarrera ukatzeko kartela amaitu zen, baita segurtasun-pertsonarik ez dagoen lekuetan tenperatura kontrolatzeko jarraibideak ere, eta hori guztia sailetako arduradunei bidali zitzaien.
<b>2020/05/25</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Aurretiko hitzordua eskatu ahal izateko izapideen egokitzapen teknologikoa egin zen.
<b>2020/05/25</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Foru-sailei jakinarazi zitzaien administrazio-epeak ekainaren 1etik aurrera berrabiaraziko zirela edo, hala aurreikusita egonez gero, epeak berrabiaraziko zirela, etenda zeuden izapideen epeen zenbaketa berriro aktiba zedin.
<b>2020/05/25</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Egoitza elektronikoaren abisuetan argitaratzen da administrazio-epeen zenbaketak segituko zuela edo, hala aurreikusita egonez gero, berriro hasiko zela argiatartu zen egoitza elektronikoaren abisuen atalean, eta Aldundia COVID-19aren orrian hartzen ari zen neurrien berri eman zen.
<b>2020/05/25</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Bizkaiko webguneko eta bulego birtualetako komunikazioekiko koordinazioa landu zen webgune horietan herritarrei helarazi beharreko informazioari eta abisuei dagokienez.
<b>2020/05/25</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Hitzordua aurretiaz ezinbestean eskatuta, aurrez aurreko arreta eskaintzen hasi zen berriro Bilboko Laguntza Erregistro eta Herritarren Arretarako bulegoetan, Durangoko, Bermeoko eta Gernikako herritarrentzako arretarako eskualde-bulegoetan eta Lersundi kaleko Gizarte Ekintzaren Erregistroan. Hitzordua BFaren webgunearen edo telefonoguneko telefono-zenbakiaren bidez lortzea dago.
<b>2020/05/25</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Deseskalatze jarraibidea eman zen Gizarteratze Zuzendaritzan.
<b>2020/05/25</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	

<b>2020/05/25</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Bizkaibus sistemako salmenta-puntu guztietan, lehentasunez, txartel bidez ordaintzeko aukera eman zen, bai eta COVID-19 kartel berriak diseinatu eta jarri ziren HABetan, kabinetan eta jendearentzako arreta-guneetan.
<b>2020/05/26</b>	Gizarte Ekintza	Bizkaiko Foru Aldundiaren Kontseiluaren erabakia, martxoaren 23ko SND/275/2020 Aginduan eta martxoaren 19ko SND/265/2020 Aginduan jasotako neurriak Bizkaiko Lurralde Historikoko titulartasun publiko edo pribatuko egoitza-zerbitzuetako zentro guztiei aplikatzeari buruzkoa, hartu zen.
<b>2020/05/26</b>	Gizarte Ekintza	COVID-19aren ziozko osasun-krisiak iraun artean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Eguneko Arretarako Gizarte Zerbitzuen zentroak irekitzeko baldintzak arautzen dituen Foru Agindua eman zen.
<b>2020/05/26</b>	Gizarte Ekintza	COVID-19aren ziozko osasun-krisiak iraun artean, Bizkaiko Lurralde Historikoan baimendutako adinekoen, desgaitasuna duten pertsonen eta babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen egoitza-zentroetara bisitan joateko baldintzak arautzen dituen Foru Agindua eman zen.
<b>2020/05/26</b>	Ahaldun Nagusia Ogasuna eta Finantzak	Maiatzaren 26ko 6/2020 Foru Dekretu Arauemailea, COVID-19aren osasun-larrialdiaren ziozko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren neurri osagarriari buruzkoa, onartu zen.
<b>2020/05/26</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Funtzionarioei prestakuntza, laguntza eta tutoretza emateko proiektu bat jarri zen abian, lanpostuan eraldaketa digitala bultzatzeko.
<b>2020/05/26</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen BBKrekin, egoera aztertzeko eta Enplegua Babesteko Planean jasotako neurriak abiarazteko.
<b>2020/05/26</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Lanberri 2018 Foru Dekretua (39/2020 Foru Dekretua, maiatzaren 26koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena) aldatzea onartu zen.
<b>2020/05/26</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	2018ko Enplegarritasunari buruzko Foru Dekretua (40/2020 Foru Dekretua, maiatzaren 26koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena) aldatzea onartu zen.
<b>2020/05/26</b>	Gizarte Ekintza	Adinekoen Zentroen Batzorde Iraunkorraren bilera egin zen.
<b>2020/05/27</b>	Gizarte Ekintza	Erakunde arteko Batzorde Soziosanitario Teknikoaren bilera egin zen. Osasun Saila eta foru-aldundiak.
<b>2020/05/27</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Ekainaren 1etik aurrera, Bizkaibus zerbitzuak aldatu ziren, eta hondartzetarako zerbitzua gehitu zitzaion.
<b>2020/05/27</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Gazteei laguntzeko Bidea Lantzen programa indartu zen.



<b>2020/05/27</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Goihabe Programaren talde teknikoaren bilera egin zen: programaren jarraipena konfinamendu-egoeran, esku hartzeko ibilbideen egokitzapena, laguntza ekonomikoen kudeaketa...
<b>2020/05/28</b>	Gizarte Ekintza	Bilera egin zen desgaitasun-arloko erakundeekin.
<b>2020/05/28</b>	Gizarte Ekintza	Komunikazioa bidali zen adinekoen, desgaituen eta adingabeen egoitza-zentroetara, adinekoen, desgaituen eta adingabeen egoitza-zentroetarako bisiten arauketa bertan jasota.
<b>2020/05/28</b>	Gizarte Ekintza	Komunikazioa bidali zen adinekoen eta desgaituen eguneko arretarako zentroetara, eguneko arretarako zentroak irekitzeko baldintzak jasota.
<b>2020/05/28</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Lantokietako plana amaitu zen.
<b>2020/05/28</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen CCOO-Euskadi eta UGT-Euskadi sindikatueta idazkari nagusiekin. Enplegua Babesteko Plana.
<b>2020/05/29</b>	Ogasuna eta Finantzak	Foru Agindu bat onartu zen eta, horren bidez, irailaren 30era arte luzatu zen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren aitortpenak eta autolikidazioak aurkezteko epea, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ziozko murrizketen ondorioz, horiek era telematikoz aurkeztera behartuta ez daudenen zergadunentzat, arreta-zerbitzua behar bezala eman ahal izateko, osasun-agintarietara ezarritako mugak kontuan hartuta.
<b>2020/05/29</b>	Ogasuna eta Finantzak	Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak beste jarraibide bat argitaratu zuen, COVID-19aren ziozko osasun-larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko zerga-neurri koiunturalei buruzko maiatzaren 5eko 4/2020 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartutako Bizkaia Aurrera! Planeko zerga-neurriei buruzko interpretazio-eta argitze-irizpideei buruzko segurtasun juridikoa emateko helburuz.
<b>2020/06/01</b>	Ogasuna eta Finantzak	Aurrez aurreko arreta berriro eskaintzen hasi zen Ogasuna eta Finantzak Sailaren bulego nagusietan eta bulego deszentralizatuetan, bai eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arreta integraleko GERTU bulegoetan ere, aurretiko hitzordua eskatuta eta osasun-agintarietara ezarritako berme guztiekin.
<b>2020/06/01</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	4136/2020 Foru Arauaren eraginpeko lehen txandako langileak berriro laneratu ziren, 14 urtetik beherako edo mendeko adinekoak ardurapean dituzten langileak izan ezik.



<b>2020/06/01</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Pertsona sentikorrei buruzko ekainaren 1eko 144/2020 Ebazpena eman zen, langileak lanean hasi aurretik egindako azterketaren ondorioz.
<b>2020/06/03</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Pertsona sentikorrei buruzko ekainaren 3ko 145/2020 Ebazpena eman zen, langileak lanean hasi aurretik egindako azterketaren ondorioz.
<b>2020/06/03</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Oporraldiko planari buruzkoa 146/2020 Ebazpena eman zen.
<b>2020/06/03</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Segurtasun eta Osasun Batzordea batzartu zen, batzordeari eragiten dion kontingentzia-planaren zatiaren jarraipena egiteko.
<b>2020/06/03</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Ekainaren 8tik 21era bitartean txandakako zerbitzua aurrez aurre edo era mistoan –aurrez aurrekoa–telelana–ematen hasi ziren langileen zerrenda onartu zuen ekainaren 3ko 4556/2020 Foru Agindua eman zen.
<b>2020/06/03</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Manparak edo itxiturak eta ganbera termikoak erosi eta instalatu ziren foru-eraikinetan.
<b>2020/06/03</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Ekainean, uztailean eta abuztuan garbiketa indartzeko larrialdi-kontratua egin zen eta sailei gorabeheren berri emateko informazio-oharra bidali zitzaion.
<b>2020/06/03</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak Ogasuna eta Finantzak	Sistema informatikoetan egin beharreko egokitzapenak egin ziren, Ondare Eskualdaketan eta Oinordetzen gaineko zergen borondatezko aurkezpenaren epemuga berria aurreikusteko, hots, 2020-09-30era artekoa.
<b>2020/06/03</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak Ogasuna eta Finantzak	Ordaindu beharreko errenta ordaintzeko eskaintza eman zen, ordainketa-gutun bidez, mugaeguna baino lehen banketxean ordaindu nahi zutenentzat. Kanpainaren behin betiko amaiera-data (irailaren 30a) zehaztu ondotik, eragindako sistema eta prozesu informatikoak egokitu ziren, banketxeek aitortpenak egiteko zerbitzua abian jarri ahal izateko, uztailearen 1etik irailaren 30era.
<b>2020/06/03</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak Ogasuna eta Finantzak	Aldaketak egin ziren sistema informatikoetan, lehen hiruhilekoko ordainagiriak atxikitze eta bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako ordainagiriak ez sortzeko, jolas-makinen baimenen jabeentzat. Baimenen aldi baterako etendura jasotzeko egokitzapen informatikoak egin ziren. 09/30ean baimenen alta masiboa egitea aurreikusi zen, aldeztu aurretik eskatutakoen kasuan izan ezik.
<b>2020/06/03</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak.	Pertsona sentikorrei buruzko ekainaren 3ko 145/2020 Ebazpena eman zen, langileak lanean hasi aurretik egindako azterketaren ondorioz.

<b>2020/06/04</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Pertsona sentikorrei buruzko 147/2020 Ebazpena eman zen.
<b>2020/06/04</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak.	Negoiazio Mahai Orokorra bildu zen. Bertan, besteak beste, gai hauek jorratu ziren: <ul style="list-style-type: none"> <li>• lana suspertzeko planaren jarraipena.</li> <li>• SPISZren kontingentzia-planaren jarraipena, mugikortasunerako eta bajak ordeztzeko garapen-protokoloak.</li> </ul>
<b>2020/06/05</b>	Ogasuna eta Finantzak	Jokoaren gaineko Zergaren autolikidazio- eta ordainketa-araubidea garatzen duen Foru Agindua onartu zen, jokoaren sektorean COVID-19aren eraginari aurre egiteko hartutako premiazko neurrien ziozko aldi baterako ustiapen-baimenak etenda dituzten makinei dagokien jokoaren gaineko makina edo aparatu automatikoen ustiapenari eta horren gaineko errekaruari buruzkoa; manu horren bidez, ezarri zen 2020ko bigarren eta hirugarren hiruilekoetako ordainagiririk ez zela kobratuko, baimenak etenda geratu zirelako, baina baimena urriaren 1a baino lehen berriro aktibatzen zuten zergadunek aktibazioa egiten deneko hiruileko osoari dagozkion zergak autolikidatu beharko zituztela.
<b>2020/06/07</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Edukiera-mugak –gidari-postua bidaiarien eremutik bereizteko oztopo fisikoa aintzat hartzen duena izan ezik– kentzea ezartzen duen ebazpena eman zen, Euskadiko Garraio Agintaritzaren gomendioei jarraiki.
<b>2020/06/08</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	<i>Pop up</i> delakoa (bannerra) jarri zen Atarilekun, Prebentzio Zerbitzuak egindako lantokietako prebentzio-neurrirei buruzko informazio-bideora eramaten duena.
<b>2020/06/08</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Pertsona sentikorrei buruzkoa ekainaren 8ko 149/2020 Ebazpena eman zen.
<b>2020/06/08</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Ekainaren 3ko 4556/2020 Foru Aginduaren eraginpeko lehen txandakoak berriro hasi ziren lanean, 14 urtetik beherakoak edo mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituztenak izan ezik.
<b>2020/06/09</b>	Gobernu Kontseilua Gizarte Ekintza	Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez, lankidetzahitzarmenak izenpetu ziren Gurutze Gorriarekin, Eroskirekin eta Bizitzin Fundazioarekin, Bizkaia Gara programaren esparruan zenbait ekimen garatzeko.
<b>2020/06/09</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta berdintasuna	Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 9ko 52/2020 Foru Dekretua onartu zen eta, horren bidez, 3R Tokiko Enplegua Programako dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia onartu ziren.
<b>2020/06/09</b>	Gizarte Ekintza	Basurtun ospitaleratutako egoiliarrek birus birusak kutsatuta egon zitezkeela antzeman zen eta Bizkaiko Foru

		Aldundiko Erantzun azkarreko Taldea aktibatu zen. 80 PCR baino gehiago egin zitzaizkien egoitzako erabiltzaileei eta langileei egun horretan bertan.
<b>2020/06/10</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak.	Azterketak egiteko plana prestatu zen.
<b>2020/06/10</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	PFEZren etekin ekonomikoei buruzko informazioa kontsultatzeko aukera eskaini zen da, COVID-19tik eratorritako laguntza-eskaera berririk kudeatzeko.
<b>2020/06/11</b>	Gizarte Ekintza	9.990 FFP2 maskara banatu ziren zentroetan.
<b>2020/06/11</b>	Ogasuna eta Finantzak	Foru Agindu bat onartu zen eta, horren bidez, martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailea, COVID-19aren ziozko premiazko zerga-neurriei buruzkoa, onartu zen, zerga-jarduera jakin batzuk bideokonferentziaz eta bide elektronikoz egiteaz den bezainbatean, zergadunen segurtasun juridikoa eta eskubideak bermatuz tributuak aplikatzeko prozedurak garatzeko xedez, horiek gauzatzeko joan-etorri fisikoen beharra ahalik eta gehien murriztuz, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa gartutako tresnak eta bideokonferentziak egiteko aplikazioak baliatuz.
<b>2020/06/12</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak.	Ekainaren 12ko 4780/2020 Foru Agindua, gainerako langileak (14 urtetik beherakoak edo mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituztenak, langile kritikoak ekainaren 29tik aurrera, eta osasuna dela eta sentikorrak direnak uztailearen 6tik aurrera) aurrez aurreko jardueran hasteari buruzkoa, eman zen.
<b>2020/06/12</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak.	Adingabeak edo adinekoak zaintzen dituzten langileak lanean berriro hasteari buruzko genero-txostena amaitu zen.
<b>2020/06/12</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak.	Funtsezko langileen mugikortasun-protokoloen eta langile horiek arin ordezteko protokoloen proiektuak amaitu ziren.
<b>2020/06/12</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	BizkaiUP bertsio berria gertatu zen: hondartzei buruzko informazioa, aplikazioa modu ilunean erabiltzeko aukera, albistearen gaineko balorazioa, telefono bidezko arreta, aurretiazko hitzorduaren webgunerako sarbidea, Bizkaitik Mugiturako sarbidea eta errealitate areagotu bidezko segurtasun-distantziaren inguruko tresna eta nabigatzeko hobekuntzak.
<b>2020/06/15</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak.	Ekainaren 3ko 4556/2020 Foru Aginduaren eraginpeko langileen bigarren txanda lanean hasi ziren, 14 urtetik beherakoak edo mendekotasuna duten adinekoak zaindu behar dituztenak izan ezik.
<b>2020/06/15</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta berdintasuna	Bilera egin zen EHUrekin egoera aztertzeko eta Unibertsitateen 3R programa abian jartzeko.

<b>2020/06/15</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen Mondragon Unibertsitatearekin egoera aztertzeko eta Unibertsitateen 3R programa abian jartzeko.
<b>2020/06/15</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 16ko 57/2020 Foru Dekretua onartu zen. Dekretu horren bidez, Manten eta Kontrata programen dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onartu ziren.
<b>2020/06/15</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen CEBEKein egoera aztertzeko eta Enpresen 3R programa abian jartzeko.
<b>2020/06/15</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen Deustuko Unibertsitatearekin egoera aztertzeko eta Unibertsitateen 3R programa abian jartzeko.
<b>2020/06/16</b>	Gizarte Ekintza	Ikuskaritza Zerbitzuak koordinatutako “Zentro soziosanitarioetan, COVID-19 prebenitzeko estrategiak eta teknikak” deritzon prestakuntza-saioen zikloa hasi zen, Osasun Sailarekin lankidetzan. Norbera babesteko ekipamenduei buruzko lehen prestakuntza-saioak izan ziren. 1.071 lagunek eman zuten izena.
<b>2020/06/16</b>	Ahaldun Nagusia Ogasuna eta Finantzak	Ekainaren 16ko 7/2020 Foru Dekretu Arauemailea onartu zen. Dekretu horren bidez, ondoko zergak doitzeko zerga-neurriak onartu ziren: Sozietateen gaineko Zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga. Beste alde batetik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorra ere berregokitu zen COVID-19ari lotutako hainbat zerga-neurriren bitartez; hala, zergaren zatikako ordainketa indargabetu zen pandemiak jotako zergadunentzat eta 2019ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zerga aitortzeko epeak kontularitza eta merkataritzako aldaketen arabera egokitu zituen.
<b>2020/06/16</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren ekainaren 16ko 176/2020 Ebazpena eman zen. Horren bidez, COVID-19 koronabirus berria dela-eta, sentikortasun berezia duten foru-langileak aurrez aurreko lanean hasi ziren berriro (uztailaren 6tik aurrera).
<b>2020/06/17</b>	Ogasuna eta Finantzak	Foru-agindu bat onartu zen eta, horren bidez, zerga-betebehar osagarri jakin batzuk ez eskatzea erabaki zen Sozietateen gaineko Zergatik zati batean salbuetsita dauden entitateei eta irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-araubide bereziari atxikita daudenei, baldin eta Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuaren apirilaren 1eko 707/2020 Foru Aginduan araututako aitortpenak eta autolikidazioak aurkezteko epearen luzapena bidegabe aplikatu bazuten.

<b>2020/06/17</b>	Ogasuna eta Finantzak	Foru Agindu bat onartu zen, eta, horren bidez, martxoaren 17ko 1/2020 Foru Dekretu Arauemailea, COVID-19aren ziozko presazko zerga-neurriei buruzkoa, eman zen, aldez aurretik geroraturako zorrak geroratzeko eskaerak ez onartzeari dagokionez, baldin eta geroratzek behin baino gehiagotan eraginkortasuna galdu badu, zerga-zorrak geroratura eta errekar gurik sortu gabe ordaindu ahal izateko.
<b>2020/06/17</b>	Ogasuna eta Finantzak, Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Finantzen Bizkaiko Kontseiluak beste batzar bat egin zuen eta, horretan, diru-bilketak behera egingo duela eta udal-finantzaketako Udalkutxa Funtzari eragingo diola azaldu zen.
<b>2020/06/17</b>	Ogasuna eta Finantzak, Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	2020ko ekitaldiko Udalkutxa Funtzaren likidazio negatiboa uztaileko konturako ematetik aurrera aurreratzeko erabakia hartu zen, akordioa berrikusteari kalterik egin gabe, hori bidez kotzen duten zenbatespen berriak eginez gero.
<b>2020/06/17</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Ekainaren 17ko 4891/2020 Foru Agindua eman zen. Horren bidez, "COVID-19 koronabirusak eragindako osasun publikoko larrialdiaren ildotik, SPISZren parkeen eraginkortasunari eusteko aldi baterako trantsizio-programa" handitu zen.
<b>2020/06/17</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak.	Finantzen Bizkaiko Kontseiluak bilkura berezia egin zuen era telematikoan, 2020ko ekainaren 17an, diru-bilketaren bilakaerari eta horrek Udalkutxan izango zuen eraginari buruzko informazioa emateko.
<b>2020/06/17</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	BizkaUP aplikazioaren bertsio berria kaleratu zen, hainbat berrikuntza gehituta: jakinarazpenak hondartzaren batan harpidetzerakoan, nabigatzeko hobekuntzak eta gailu batzuetako akatsen zuzenketa.
<b>2020/06/18</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	CRUZ ROJA RESPONDE programaren dirulaguntza onartu zen, COVID-19aren ziozko beharrian-egoerei erantzuteko.
<b>2020/06/18</b>	Ogasuna eta Finantzak	COVID-19ak sorrarazitako larrialdiari aurre egiteko Koordinazio Ekonomikoaren Erakunde arteko Lantaldea bildu zen, diru-bilketaren egoeraren eta balizko defizit-testuinguruen jarraipena egiteko.
<b>2020/06/19</b>	Ogasuna eta Finantzak	Foru Agindu bat onartu zen eta, horren bidez, Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 94.ter artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten zor edo tributu-zehapenen ziozko Bizkaiko Foru Ogasunaren zordunen zerrenda argitaratzeko data ezarri zen. Zerrenda hori 2020ko urriaren 30ean argitaratuko da, ohienez, ekainaren 30ean ordeztu beharrean, hain zuzen ere, zerrenda horren argitalpena dela eta, zordunen

		eskubideak bermatzen dituzten administrazio-prozedurak garatu ahal izateko.
<b>2020/06/19</b>	Gizarte Ekintza	Bizkaiko Lurralde Historikoan, adinekoak eta desgaitasuna duten pertsonak egoitza-zentroetan sartzeko prebentzio-neurriak ezartzen dituen Foru Agindua eman zen, Eusko Legebiltzarrerako 2020ko uztailaren 12ko hauteskunde orokorretan botoa emateko eskubidea ahalbidetzeko.
<b>2020/06/19</b>	Gizarte Ekintza	Bizkaiko Lurralde Historikoan, adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetan prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurriak ezartzen dituen foru-agindua eman zen. Detekzio goiztiarra, bizikidetzeta-plana, paseatzeko baimena, kontingentzia-plana, norbera babesteko ekipamenduen segurtasun-izakinak...
<b>2020/06/19</b>	Gizarte Ekintza	Jakinarazpena bidali zen adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetara (10 plaza baino gehiago) eta etxebizitza komunitarioetara, Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetako prebentzio-, euste- eta koordinazio-neurriak jasota.
<b>2020/06/19</b>	Gizarte Ekintza	Adinekoen Zentroen Batzorde Iraunkorraren bilera egin zen.
<b>2020/06/19</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Word eta Excel programei buruzko azterketa berezia egin zen, industria-ingeniaritzaren, gorputz-hezkuntzaren eta mantentze-lanetako laguntzaileen kategorietan, BFA sartzeko baldintza hori betetzeko aukera berma zedin, KZgune gehienak itxita baitzeuden.
<b>2020/06/19</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 181/2020 Ebazpena eman zen. Horren bidez, COVID-19 koronabirus berria dela-eta, sentikortasun berezia duten foru-langileak aurrez aurreko lanean hasi ziren berriro (uztailaren 6tik aurrera).
<b>2020/06/19</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	SPISZek egoitzak desinfektatzen emandako azken eguna izan zen. Suhiltzaileek 1.013 egoitza desinfektatu zituzten eta Basalanek 324. Guztira 1.337 jarduketa egin izan dira data honetara arte martxoaren 23tik.
<b>2020/06/19</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Egoitza elektronikoen abisuetan argitaratu zen aurrez aurreko arreta hitzordua eskatuta soilik emango zela.
<b>2020/06/19</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Bilera egin zen CEBEKein. Enplegua Babesteko Plana.
<b>2020/06/22</b>	Gizarte Ekintza	Ikuskaritza Zerbitzuak 165 ikuskapen eginda zituen Osasun Sailarekin batera 04-09tik Bizkaiko adinekoen egoitza-sare osoan.

<b>2020/06/22</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren zuzendaria nagusiaren ekainaren 22ko 182/2020 Ebazpena eman zen. Horren bidez, COVID-19 koronabirus berria dela-eta, sentikortasun berezia duten foru-langileak aurrez aurreko lana aldatu zen.
<b>2020/06/22</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, Ahaldu Nagusia	Diputatu Nagusiaren ekainaren 22ko 91/2020 Foru Dekretua eman zen eta, horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Larrialdietarako Foru Plana indargabetu zen.
<b>2020/06/22</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Bulegoak berriro ireki ziren, aurretiazko hitzordua eskatuta: <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala.</li> <li>2. Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria.</li> </ol>
<b>2020/06/22</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Aurrez aurreko arreta ezarri zen, Iraunkortasunaren eta Ingurune Naturalaren eta Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren erregistroetan, nahitaez, aurretiazko hitzordua eskatuta. Herritarrei Arreta Emateko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzak bi sailei laguntzen die, Erregistroaren eta Herritarrei Arreta Emateko Atalaren bidez.
<b>2020/06/23</b>	Gizarte Ekintza	Ikuskaritza Zerbitzuak koordinatutako “Zentro soziosanitarioetan, COVID-19 prebenitzeko estrategiak eta teknikak” deritzon bigarren prestakuntza-saioa egin zen, Osasun Sailarekin lankidetzan. Zentroetako prebentzioa. 580 lagunek eman zuten izena.
<b>2020/06/23</b>	Gizarte Ekintza	Komunikazioa bidali zen adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetara, egoitza-zentroetan COVID-19 birusa berriro agertzekotan, zaintza-, kontrol- eta prebentzio-neurriak jasota. Erantzun azkarreko ekipoak.
<b>2020/06/23</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Kontingentzia Planaren genero-txostena amaitu zen.
<b>2020/06/23</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Bizkaiko Foru Aldundiaren 169/2018 Foru Dekretua, abenduaren 18koa, eta 177/2019 Dekretua, azaroaren 26koa, aldatu ziren. Dekretu horien bidez, 2019an eta 2020an Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Foru Sailak ematen dituen dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren. Dirulaguntza horien helburua dugu udal-eskumeneko erabilerari edo zerbitzu publikoei atxikitako azpiegituretarako inbertsioak sustatzea. Gauzatzeko eta justifikatzeko epeak luzatu egin ziren.
<b>2020/06/23</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta berdintasuna	2019ko ekitaldiko Lanberriren Foru Dekretua (Bizkaiko Foru Aldundiaren 61/2020 Foru Dekretua, maiatzaren 12koa) aldatzeko proposamena onartu zen.
<b>2020/06/23</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta berdintasuna	2019ko ekitaldiko Gazteen enplegarritasunari buruzko



		Foru Dekretua (Bizkaiko Foru Aldundiaren 62/2020 Foru Dekretua, ekainaren 23koa) aldatzeko proposamena onartu zen.
<b>2020/06/23</b>	Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna	Proiektu berritzaileei buruzko Foru Dekretua (Bizkaiko Foru Aldundiaren 63/2020 Foru Dekretua, ekainaren 23koa) aldatzeko proposamena onartu zen.
<b>2020/06/24</b>	Gizarte Ekintza	Bilera egin zen desgaitasun-arloko erakundeekin.
<b>2020/06/24</b>	Gizarte Ekintza	Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoaren bilera egin zen.
<b>2020/06/24</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Sarbideetan, tenperatura kontrolatzeari buruzko DBLO kartelak jarri ziren.
<b>2020/06/25</b>	Gizarte Ekintza	Adinekoen Kontseiluaren Osoko bilkura egin zen.
<b>2020/06/25</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Negoiazio Mahai Orokorrak batzarra egin zuen.
<b>2020/06/25</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Lantokietako uda-sasoiko material-horniduren aurreikuspena egin zen.
<b>2020/06/26</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak. Funtzio Publikoa	Pandemiaren zioz geroratutako azterketen jarraibideen deialdia egin eta argitaratu zen, industria-ingeniaritzaren, gorputz-hezkuntzaren eta mantentze-lanetako laguntzailearen kategorietan, osasuna babesteari buruzko kasuan kasuko oharrak jasota.
<b>2020/06/29</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Ekainaren 12ko 4780/2020 Foru Aginduaren eraginpeko langileen lehen txanda lanean hasi zen. Foru Agindu horren bidez, 14 urtetik beherakoak edo adinekoak zaintzen dituztenak eta langile kritikoak aurrez aurreko jardueran hasi behar ziren berriro.
<b>2020/06/29</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Deskonfinatze osasungarria garatzeari buruzko albistea eta materialak argitaratu ziren Atarilekun.
<b>2020/06/29</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren zuzendaria nagusiaren ekainaren 29ko 200/2020 Ebazpena eman zen. Horren bidez, COVID-19 koronabirus berria dela-eta, sentikortasun berezia duen langile baten egoera aldatu zen, telelana egiten jarrai zezan.
<b>2020/06/29</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Finantzen Bizkaiko Kontseiluak bilkura berezia egin zuen era telematikoan 2020ko ekainaren 29an. Bilkura horretan, EUDEL-en Bizkaiko Lurralde Batzordeak 2020ko ekainaren 24ko bileran hartutako erabakiaren berri eman zen, Udalkutxa 2020 murrizteari buruz. Hala, COVID-19aren eraginez, zerga itunduen bilketa murriztagoaren ondorioz, 2020ko uztailetik abendura, konturako ekarpenak % 20 murriztea erabaki zen.
<b>2020/06/29</b>	Gizarte Ekintza	Egoitzetan mendekotasunaren balorazioa aktibatzeko jarraibidea eman zen.

<b>2020/06/30</b>	Gizarte Ekintza	1.786 pertsona izena emanda egoitzetako langileen lan-poltsan (17 mediku, 38 OLT, 1.491 zainzaile eta zehaztu gabeko beste 240). 37 egoitzetan kontratuak egiteko harremanak landu ziren eta 244 eskaerei kasu egin zitzairen.
<b>2020/06/30</b>	Gizarte Ekintza	Ikuskaritza Zerbitzuak koordinatutako “Zentro soziosanitarioetan, COVID-19 prebenitzeko estrategiak eta teknikak” deritzon hirugarren prestakuntza-saioa egin zen, Osasun Sailarekin lankidetzan. COVID-19 agertuz gero, zentroetan hartu beharreko neurriak. 676 lagunek izena eman zuten.
<b>2020/06/30</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	BFaren Gobernu Kontseiluak Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren (Udalkutxa) konturako ekarpenak 2020ko uztailetik abendura % 20 murrizteko erabakia hartu zuen.
<b>2020/06/30</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	
<b>2020/06/30</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Uztailaren 1etik aurrera, aldaketak egin ziren Bizkaibus zerbitzuan, Metro Bilbaok asteburuetan 2: 00ak arte ematen dituen gaueko zerbitzuetara egokitzeko.
<b>2020/07/01</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Segurtasun eta Osasun Batzordea bildu zen, egoeraren jarraipena egiteko.
<b>2020/07/01</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	
<b>2020/07/01</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren uztailaren 1eko 201/2020 Ebazpena eman zen. Horren bidez, COVID-19 koronabirus berria dela-eta, sentikortasun berezia duten foru-langileak aurrez aurreko lanean hasi ziren berriro (uztailaren 6tik aurrera).
<b>2020/07/03</b>	Gizarte Ekintza	Igurco Unbe egoitzako plaza soziosanitarioen zerbitzuen kontratua sinatu zen, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz (larrialdiko prozedura).
<b>2020/07/03</b>	Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak	Lantokietako uda-sasoiko material-hornikuntza eta banaketa egin ziren.
<b>2020/07/07</b>	Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria	Bizkaibuseko ibilgailuetan, manpara homologatuak instalatzeko proiektua abian jarri zen, irailean, aurreko atea ireki ahal izateko.
<b>2020/07/18</b>	Gizarte Ekintza	Egoiliarrentzako ibilaldiak eta irteerak eten ziren bisitak egoiliar bakarrarentzat mugatu ziren, prebentzio-izaeraz, aldi baterako eta berrikusteko moduan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hala agindu ostean.
<b>2020/07/18</b>	Gizarte Ekintza	Eguneko arreta-zentroen jarduera astebetetz eten zen, besterik jakinarazi arte.
<b>2020/07/30</b>	Gizarte Ekintza	Bisitak berriro ere baimendu ziren egoitza-zentroetan,

		uztailaren 18a baino lehenagoko araubidean, 2020ko uztailaren 31tik aurrera. Erabiltzaileentzako ibilaldiei edo irteerei dagokienez, nagusiki, ibilaldi terapeutikoak egin ahalko dira data horretatik aurrera, egoitza-zentroaren beraren inguruan, eta espazio jendetsu edo itxiak saihestuko dira.
<b>2020/07/30</b>	Gizarte Ekintza	Abuztuaren 3tik aurrera, berriro hasi zen jarduera eguneko arreta-zentroetan (Ermuan, Ondarroan, Barakaldon, Bilbon eta Mungian dauden zentroetan izan ezik).
<b>2020/08/03</b>	Gizarte Ekintza	
<b>2020/08/20</b>	Gizarte Ekintza	Gizarte Ekintzako foru diputatuaren abuztuaren 20ko 38986 Foru Agindua eman zen. Agindua abuztuaren 21ean argitaratu zen eta, horren bidez, adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zentroetako bisitak arautu ziren.
<b>2020/08/20</b>	Gizarte Ekintza	Baterako ikuskapenak berraktibatzeke plana abian jarri zen (Osasun Sailarekiko konpromisoa): 2020/08/20an pertsona bat jarri zuten eskura eta abuztuaren 24tik aurrera 2 pertsona. Apurka-apurka, Osasun Publikoko 4 teknikari aritu dira Gizarte Ekintzako ikuskatzaileekin batera.
<b>2020/08/24</b>	Gizarte Ekintza	Bizkaiko Foru Aldundiaren webgune bat martxan jarri zen egoitza-zentroetara egiten diren bisitak erregistratzeko (baimen informatuarekin), egoiliarrek bisitatzen dituzten pertsonen informazioa eta kontaktua izateko. Horri esker, haien bizilekua ezagutu daiteke (komunitatean birus-agerraldirik balego), bai eta prebentziozko edo zaintzako PCR egitera deitu ere.
<b>2020/08/28</b>	Gizarte Ekintza	Eskualdeko lehen kontrol-unitate berezia egin zen, Gernikan izandako agerraldiagatik, profesionalei prebentziozko baheketak egiteko. Gernikan egin zen Busturialdearentzat.
<b>2020/09/01</b>	Gizarte Ekintza	
<b>2020/09/07</b>	Gizarte Ekintza	Eskualdeko kontrol-unitate berezia egin zen, profesionalei prebentziozko baheketak egiteko. Amorebieta-Etxanon egin zen, Durangalde eta Arratiarentzat.
<b>2020/09/11</b>	Gizarte Ekintza	Eskualdeko kontrol-unitate berezia egin zen, profesionalei prebentziozko baheketak egiteko, Mungian izandako agerraldiagatik. Mungian egin zen, Mungialde eta Txorierrrentzat.
<b>2020/09/15</b>	Gizarte Ekintza	Ikuskaritza Zerbitzuak koordinatutako "Infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko faseetan laguntzeko eta koordinatzeko mekanismoak" izeneko lineako

		prestakuntza-saioak hasi ziren egoitza-zentroetako kudeatzaile eta arduradunentzat, Osasun Sailarekin lankidetzan. 402 lagunek eman zuten izena.
<b>2020/09/22</b>	Gizarte Ekintza	Eskualdeko kontrol-unitate berezia egin zen, profesionalei prebentziozko baheketak egiteko. Zallan egin zen, Goi Enkarterrentzat.
<b>2020/09/22</b>	Gizarte Ekintza	Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zentroetako eta eguneko arreta-zentroetako profesional soziosanitarioentzako lineako prestakuntzaren 2. zikloaren bigarren saioa egin zen. Gaia: “Nola saihestu birusaren hedapena jarduera profesionalaren garapenean jardunbide egokien bidez”. Ikuskaritza Zerbitzuak koordinatu zuen, Osasun Sailarekin lankidetzan. 600 pertsona baino gehiagok eman zuten izena.
<b>2020/09/29</b>	Gizarte Ekintza	Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitza-zentroetako eta eguneko arreta-zentroetako profesional soziosanitarioentzako lineako prestakuntzaren 2. zikloaren hirugarren saioa egin zen. Gaia: “Isolamendu-egoeran dauden erabiltzaileen gaitasun funtzionalak lantzeko estrategiak”. Ikuskaritza Zerbitzuak koordinatu zuen, Osasun Sailarekin lankidetzan. 600 pertsona baino gehiagok eman zuten izena.